

AKTA

UDAL OSOKO OHIKO BATZARRA

Udal-Osoko ohiko batzarra bildu da:

Eguna: 2023/05/24

Ordua: 18:00-ak

Tokia: Udaletxeko Areto Nagusian

Bertaratuak:

Alkatea: Jexux Leonet Elizegi

Zinegotziak:

EHBildu

Eneritz Arbelaitz Sarasti
Agustin Lekuona Irastorza
Jon del Olmo Larrañaga
Josu Delgado Rozas
Olga Maria Aranzazu Leibar Mendarte
Enekoitz Marcos Azpiroz
Haizea Saez de Eguilaz Perez
Miren Arrosa Lizaso Azpiroz

EAJ-PNV

Rafael Bergareche Urdampilleta
Iñaki Arbelaitz Michelena
Maitane Larruskain Aguirre
Janire Michelena Lecuona

Idazkaria:

Oihane Mallagaray Revilla

Ezin etorria adierazi dute:

EHBildu

Olaia Lasa Olaziregi
Miren Yosune Cousillas Aramendi
Goratz Gezala Etxeberria

EAJ-PNV

Yon Goikoetxea Labaka

AZTERGAIAK:

1. 2023/04/26 eta 2023/04/27 datetan egindako batzarren aktak onartu ziren.
2. Arraztalo Elkarte eta Oiartzungo Udalaren arteko hitzarmena onartu zen.
3. Oarsoaldea S.A.ren 2023ko gestio planaren egikaritzarako bi entitateen arteko hitzarmenaren baitan lehen hiru hilekoaren ordainketa onartu zen.
4. Inmobiliaria de Orio Txoko Txiki S.L.k Mendibilko parkean dituen lurak eta ELI-6 eremuan udalaren eraikigarritasunaren arteko trukaketa onartu zen.
5. Txarondo herri-bidea jabari publikoko ondasuna berreskuratzeko espedientean alegazioak ezeztu eta berreskuratze erabakia berrestea erabaki zen.



6. Oiartzungo udal mugapean bidaiarien hiri-garraio zerbitzuaren kontratuan Autobuses Cuadra, S.A. enpresak eskatutako zerbitzu-kontratuaren oreka ekonomikoaren berrezartzeko eskaera ezeztu zen.
7. Elorsoro Kiroldedia, Madalensoro pilotalekua eta udako igerilekua udal instalazioen zerbitzu-emakida kontratuaren oreka ekonomikoa berrezartzeko eskaera (4. hiruhilabetea) ezeztu zen.
8. Oiartzungo Udaleko 2023. urteko lanpostuen zerrendaren aldaketa onartu zen.
9. Oiartzungo Udaleko korporazio-kideen interesen erregistroak eratzea eta dagozkion aitortpenak egiteko ereduak eta aurkezpen araubidea onestea erabaki zen.
10. Hainbat udal zergetatik eratorritako zorrak kobraezinak aitortu ziren.
11. 2022 ekitaldiko Oiartzungo Udalaren aurrekontuaren Kontu Orokorra onartu zen.
12. Beste ekitaldietako ordainagiriak baliogabetu ziren.
13. Beste organoen jardueraren jarraipena egin zen.
14. Legegintzaldia amaitzeko Alkateak eta zinegotzi andre eta jaunek balorazioa egin eta agurtu ziren.

Esan-eginak eta erabakiak

- I -

AURREKO BATZARREN AKTEN ONARPENA.

2023ko apirilaren 26ko ohiko bilkuraren eta apirilaren 27ko ezohiko bilkuraren aktak onartu ziren aho batez, aldeko 13 botorekin.

- II -

ARRAZTALO ELKARTEA ETA OIARTZUNGO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA ONARTZEA.

Arraztalo Elkarte irabazi-asmorik gabeko erakundea da, Elkarte Erregistroan AS/G14901/2010 zenbakiarekin erregistratuta, eta helburua nagusia du gaixotasun psikikoa duten oiartzuarren lan eta gizarte integrazioa egitasmoak sustatu eta gauzatzea.

Elkarteak, 2023ko urtarrilaren 12an 225 sarrera erregistroko idatziaren bidez, 2023 urteko dirulaguntza eskaera egin dio Udalari.

Arraztaloren helburuaren interes publikoa eta soziala ikusirik, Oiartzungo Udalak elkarteari diruz laguntzeko eta bien arteko lankidetzak xedatzeko bi erakundeen arteko hitzarmen dokumentua idatzi du Gizarte Zerbitzuetako buruak, hori guztia Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea kontutan hartuta, besteak beste.

Aipatu hitzarmena dirulaguntzak arautzeko udal Ordenantzaren arabera (2022ko irailaren 22ko 178 zk.ko GAOn argitaratua) idatzi da eta programa 2022-2024 epeko Udalaren plan estrategikoan barneratuta dago. Halaber, 2023ko aurrekontuan dagokion izendapena egina dago.

Prozedurari dagokionez, justifikazio-memoria, idazkariaren aldeko txostena eta kontu-hartzailearen fiskalizazio txostena erantsi dira espedientean. Halaber, 2023ko maiatzaren 10ean Gizarte Ongizate Batzordeak aldeko diktamena eman dio hitzarmenaren onarpenari.

Guzti hau kontutan hartuta, honako akordioa hartu du Udalbatzak:

Lehena.- Arraztako Elkarte eta Oiartzungo Udalaren arteko lankidetzak hitzarmena, eranskinean jasota dagoen moduan, onartzea. Hitzarmenak honako xehetasunak ditu:

Xedea: gaixotasun psikikoa duten pertsonen lan eta gizarte integrazioa sustatu eta garatzea.

Indarraldia: sinatzen den egunetik 2023ko abenduaren 31a arte.

Dirulaguntzaren kopurua: 53.000.- euro

Ordainketa epeak: 1. zatia, guztizko kopuruaren %80a, eskaera egiterakoan; eta 2. zatia, gainontzeko %20, gastuak zuritu ondoren.

Bigarrena.- Gastua onartzea, Oiartzungo Udalaren 1 1001.481.231.00.03 2023 diru-atalaren kontura (AD 1178-2023).

Hirugarrena.- Alkate jaunari ahalmena ematea beharrezko dokumentuak sinatzeko

Gaia bozkatu egin da.

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	12	EHBildu, EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa	1	Jon del Olmo jauna

Beraz, gaia onartu egin da aldeko 12 botorekin (EHBildu, EAJ/PNV) eta abstentzio batekin (Jon del Olmo Larrañaga zinegotzi jauna)

- III -

OARSOALDEA S.A.REN 2023KO GESTIO PLANAREN EGIKARITZARAKO BI ENTITATEEN ARTEKO HITZARMENAREN BAITAN LEHEN HIRUHILEKOAREN ORDAINKETA ONARTZEA.

Oiartzungo Udal Osoko Batzarrak 2023ko apirilaren 26an onartu zuen 2023 urtean Oarsoaldea S.A.ren gestio plana gauzatzeko bi entitateen arteko lankidetzaz hitzarmena eta horren baitan, Udalak ordaindu beharreko zenbatekoak.

Oarsoaldea S.A.k, 2023ko apirilaren 21ean aurkeztutako 2870 erregistro zenbakiko idatziaren bidez, martxan jarritako programen lehen hiruhilekoa ordaintzea eskatu du.

Kontu-hartzaileak egindako txostenaren arabera, hitzarmena sinatzean honako ordainketa konpromisoak hartu zituen Udalak:

Programa	Kopurua	Aurrekontuko diru-atala
Hiri berriztapena eta mugikortasuna	30.317,22 €	1 0301.421.150.00.01.2023 (AD-1033-01/2023)
Turismo sustapena eta Kontsumoa	93.165,52 €	1 0903.421.170.02.01.2023 (AD-1033-02/2023)
Gizarteratze	163.015,44 €	1 1001.421.241.00.01.2023 (AD-1033-03/2023)
Industria sustatzeko	56.210,97 €	1 1001.421.433.00.01.2023 (AD-1033-04/2023)

Horrenbestez, Ogasun, Kontu Berezien eta Hainbat Gaien Batzordeak, 2023ko maiatzaren 16an egindako bilkuran emandako aldeko diktamenaren baitan, honako akordioa hartu du Udalbatzak:

Bakarra.- Oarsoaldea S.A.ri 85.677,28 €-ko ordainketa egitea, lankidetzaz hitzarmenaren baitan hartutako konpromisoen lehen hiruhilekoari dagokiona, honela banatuta:

Programa	Kopurua	Aurrekontuko diru-atala
Hiri berriztapena eta mugikortasuna	7.579,30 €	1 0301.421.150.00.01.2023 (AD-1033-01/2023)
Turismo sustapena eta Kontsumoa	23.291,38 €	1 0903.421.170.02.01.2023 (AD-1033-02/2023)
Gizarteratze	40.753,86 €	1 1001.421.241.00.01.2023 (AD-1033-03/2023)
Industria sustatzeko	14.052,74 €	1 1001.421.433.00.01.2023 (AD-1033-04/2023)
GUZTIRA	85.677,28 €	

Ondoren gaia bozkatu egin da.

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	13	EHBildu, EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

Beraz, gaia aho batez onartu da aldeko 13 botorekin (EHBildu, EAJ/PNV).

- IV -

INMOBILIARIA DE ORIO TXOKO TXIKI S.L.K MENDIBILKO PARKEAN DITUEN LURRAK ETA ELI-6 EREMUAN UDALAREN ERAIKIGARRITASUNAREN ARTEKO TRUKAKETA ONARTZEA.

Udal honetan Inmobiliaria de Orio Txoko Txiki S.L. enpresak lur trukaketa egiteko eskaera jaso da.

I.- Proposamenak udalak Plan Orokorreko ELI-6A eremu urbanistikoan barne sartzen diren lur hirigarriaren bi multzoei eragiten die.

Batetik J.M. Mitxelena Rezolarekin lur trukaketaren ondorioz lortutako lursaila dago, Jabetza Erregistroko 18.940 finka, 549,83 m²ko lursaila, honako deskribapenarekin: *“Trozo de terreno procedente del denominado Tolarieta, en el paraje Larramendi, situado en jurisdicción del valle de Oiartzun. Linda: Norte, pertenecidos de Echauri; Sur, tierras de Echechiki y Lizarraga; Este, terrenos propiedad de don Román Ormazabal Gorrochategui, según manifiestan; y Oeste, finca matriz”*. Udalak 2010/06/17an María Aguirre notariaren aurrean izenpeturiko eskritura (protokoloko 492 zk.a) bidez eskuratu zuen eta ez du kargarik.

Bestetik, Sarasti senideen lurretan egindako aurretiazko okupazioa, 2009an, eta lur erosketa, 2015ean, emaitzan eman zituen eskubide urbanistikoak edo eraikigarritasuna, Jabetza Erregistroko 18.964, 18.966 eta 18.968 finkak dira, eta 5.800,95 m²ko lursailari dagokion eskubide urbanistikoa barneratzen ditu, honako deskribapenarekin:

1.- 18.964 finka:

URBANA.- APROVECHAMIENTO URBANÍSTICO de: A) Cero enteros tres mil trescientas sesenta y cinco diezmilésimas por ciento sobre once mil cuatrocientos cuarenta metros cuadrados de techo residencial de viviendas de régimen de protección oficial general; B) Cero enteros tres mil trescientas sesenta y cinco diezmilésimas por ciento sobre cuatro mil ciento sesenta metros cuadrados de techo residencial de viviendas tasadas municipales de régimen especial; C) Cero enteros tres mil trescientas sesenta y cinco diezmilésimas por ciento sobre cinco mil doscientos metros cuadrados de techo residencial de viviendas en régimen de venta libre; D) Cero enteros tres mil trescientas sesenta y cinco diezmilésimas por ciento sobre mil ciento treinta metros cuadrados de techo de uso comercial, correspondientes a la parcela constituida por una porción de terreno de doscientos catorce metros ochenta y tres decímetros cuadrados, procedente del terreno libre de la mitad lado Este de la casa Sarasti Berri, situado en el paraje SIBELUTS de Oiartzun, hoy Sibeluts Kalea número tres, que linda: Norte, con el lote segundo que será para la sucesión hereditaria de Doña Manuela Sarasti, hoy Porción segregada para equipamiento escolar; Sur, con finca matriz de donde se segrega; Este, con propiedad de la Señora Viuda de Múgica del Caserío Lizarraga; Oeste, con el mismo lote segundo, hoy porción segregada para equipamiento escolar, que conforma parte de la Parcela F, suelo urbanizable incluido en el Sector ELI-6-A de las Normas Subsidiarias de Planeamiento aprobadas definitivamente por el Ayuntamiento de Oiartzun, en sesión plenaria de veintiocho de octubre de dos mil nueve, segregada para su ocupación y destino como parcela de equipamiento comunitario del Sistema General escolar.

2.- 18.966 finka:

URBANA.- APROVECHAMIENTO URBANÍSTICO de: A) Seis enteros cuatro mil cuatrocientas cuarenta y dos diezmilésimas por ciento sobre once mil cuatrocientos cuarenta metros cuadrados de

techo residencial de vivienda de régimen de protección oficial general; B) Seis enteros cuatro mil cuatrocientas cuarenta y dos diezmilésimas por ciento sobre cuatro mil ciento sesenta metros cuadrados de techo residencial de viviendas tasadas municipales de régimen especial; C) Seis enteros cuatro mil cuatrocientas cuarenta y dos diezmilésimas por ciento sobre cinco mil doscientos metros cuadrados de techo residencial de viviendas en régimen de venta libre. D) Seis enteros cuatro mil cuatrocientas cuarenta y dos diezmilésimas por ciento sobre mil ciento treinta metros cuadrados de techo de uso comercial, correspondiente a la parcela constituida por una porción de terreno suelo urbanizable, de cuatro mil ciento catorce metros y treinta y cinco decímetros cuadrados, procedente de Tierra sembradía llamada CIBELUZ, finca rústica situada en la parte Norte de la Casa Arrambide de Oiartzun, que Linda: Norte, finca matriz; Este, en parte con pertenecidos de Don Vicente Artazgo y en parte con finca matriz; Oeste, con pertenecidos de Doña Sebastiana Echeveste, cuya porción de terreno conforma parte de la Parcela F, suelo urbanizable incluido en el Sector ELI-6-A de las Normas Subsidiarias de Planeamiento aprobadas definitivamente por el Ayuntamiento de Oiartzun en sesión plenaria de veintiocho de octubre de dos mil nueve, segregada para su ocupación y destino como parcela de equipamiento comunitario del sistema General escolar.

3.- 18.968 finka:

URBANA.- APROVECHAMIENTO URBANÍSTICO.- A) Un entero cuatro mil cuatrocientas cuarenta diezmilésimas por ciento sobre once mil cuatrocientos cuarenta metros cuadrados de techo residencial de viviendas de régimen de protección oficial general; B) Un entero cuatro mil cuatrocientas cuarenta diezmilésimas por ciento sobre cuatro mil ciento sesenta metros cuadrados de techo residencial de viviendas tasadas municipales de régimen especial; C) Un entero cuatro mil cuatrocientas cuarenta diezmilésimas por ciento sobre cinco mil doscientos metros cuadrados de techo residencial de viviendas en régimen de venta libre; D) Un entero cuatro mil cuatrocientas cuarenta diezmilésimas por ciento sobre mil ciento treinta metros cuadrados de techo de uso comercial, correspondientes a la parcela constituida por una porción de terreno de novecientos veintiún metros noventa y cuatro decímetros cuadrados, procedente del terreno libre de la mitad lado Oeste, de la Casa denominada Sagasti Berri, situada en el paraje llamado SIBELUTS de Oiartzun, que linda: Norte, pertenecidos de Lizarraga de la Señora viuda de Mugica; Este, con esos mismos pertenecidos en parte y en el resto con el lote primero que será para la sucesión hereditaria de Don Ignacio Sarasti, hoy porción segregada con destino a equipamiento escolar; Sur, con finca matriz de donde se segrega; Oeste, con camino carretil y terreno del Señor Sarasti, cuya porción de terreno conforma parte de la Parcela F, suelo urbanizable incluido en el Sector ELI-6-A, de las Normas Subsidiarias de Planeamiento aprobadas definitivamente por el Ayuntamiento de Oiartzun en sesión plenaria de veintiocho de octubre de dos mil nueve, segregada para su ocupación y destino como parcela de equipamiento comunitario del sistema general escolar.

Udalak 2015/07/15ean Montserrat Arrese notariaren aurren izenpeturiko eskritura (protokoloko 400 zk.a) bidez eskuratu zituen eta ez dute kargarik.

Ondorioz, udalak permutan ematen duen ondasuna 549,83 m² lursaila eta 5.800,95 m²ko lursailari dagozkion eskubide urbanistikoak dira.

Udal hirigintza teknikariak egindako txostenaren arabera, 2015ean udalak eskubideak erosteari ekiten dionean Jabetza Erregistroak eraikigarritasunei esleituriko 3 finkak itxi zituen eskubide guztiak udalaren izenean sendartu zirelako. Gauzak horrela, ikusirik oraingoan udalak transmitituko duena eskubide horiek direla, 2023/04/27ko 2023-622 zk.ko Dekretu bidez, 3. Jabetza Erregistroari eskatu zaio, *Hipoteka Legea betearazteko Erregelamenduaren arau osagarriak onartu ziren, hirigintzako egintzak Jabetza Erregistroan inskribatzeari buruzko*, uztailaren 4ko 1093/1997 Errege Dekretuaren 39.1 artikuluari jarraiki, aprobetxamendu horiek lurretik berezitateko finka berezi gisa inskribatzea eta 18.964, 18.966 eta 18.968 finketako orriak berriz irekitzea, trukea hirigintza-aprobetxamenduko eskubideekin egin ahal izateko, jatorrizko partzelen jabetzatik eta helburutik berezirik.

II.- Bestalde, partikularrak, Inmobiliaria de Orio Txoko Txiki S.L. ek trukaketan emango lukeen ondasunari dagokionez, Jabetza Erregistroko 621 zk.ko finka da eta egun berean eskaturiko zatiketa baimenaren ondorioz, aipatu finkatik Plan Orokorreko ELI-6A eremu urbanistikoan sartzen diren 900,54 m² zatitu dira, lur jabeak bere izenean gordetzeko, eta jatorrizko finka, udalari trukaketan eskaintzen zaiona honako hau izango da:

Jabetza erregistroaren arabera 48.947,46 m²ko azalera duena, eta errealidadean 41.811 m² dituena. Horietatik honako sailkapeneko 2 zati geldituko dira, eskaeran aipatzen den trukaketaren ondorioz udalaren jabetzakoak izango direnak:

- A) Landalur edo lur ez urbanizagarri bezala sailkaturiko gehieneko zatia: Katastroko 4. Poligonoko 40 eta 46 partzelak.
- B) Hirilur bezala sailkaturiko ELI-2D eremuan sartzen den 207,32 m² zatia, hilerriaren zabalpenerako erabilera izango duena.

Deskripzioa: *“Pertenecidos que constituyen el resto de la Caserío Mendibil de Oiartzun. Constituyen suelo no urbanizable excepto en una pequeña porción de 207,32 m² que forma parte del suelo urbano del ámbito ELI-2D destinado a ampliación del cementerio. Ocupa una superficie de 48.947,46 m². Linda, por Norte, con fincas segregadas y porción objeto de expropiación; Sur, con terreno labrante del Caserío Araneder de la misma propiedad de Labaca; Este, con porción objeto de expropiación, finca segregada, con Caserío Arrambide y del Caserío Zurco; y oeste, con finca segregada”.*

Ez du kargarik.

Beraz, lur zatiketaren ondoren udalak 48.947,46 m²ko lursaila bereganatzeko aukera du.

III.- Espedientean jasota gelditu den moduan, hirigintza teknikariak udal ondasunaren izaera aztertzen duen txostena egin du eta bertan apirilaren 2ko 7/1985 Toki-araubidearen Oinarrien Legearen 79 artikulua, Toki-araubidearen arloan indarrean dauden Xedapenen Testu Bateratua onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 E. Dekretu Legegilearen 74. artikulua eta Toki Entitateen Ondasunak arautzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 E. Dekretuaren 2. eta hurrengo artikuluekin bat etorritik, aipatu ondasunak, erabilera eta zerbitzu publikoari atxikita ez daudenez, ondare ondasuna direla ondorioztatu du. Horrezaz gain, PMS edo Lurzoruaren udal-ondarearen izaera duela azpimarratu da, eta Lurzorua eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen IV Tituluaren I. kapituluak arautzen du eta 113, a) artikulua arabera, udal jabetzako lursaila diren 18.940 finka (Mitxelenarekin egindako trukaketatik datorrena), eta 18.964, 18.966 eta 18.968 zenbakikoak (ELI-6A eremuan udalak duen hirigintza-eskubideei dagozkienak), guztiak Lurzoruaren udal-ondarearen parte dira.

Ondare bereizi horri aipatu legeak ezarritako helburuak azterturik, txostenak dio helburu gisa lurzorua eta etxebizitzaren merkatua arautzea, eta Lurralde- eta hirigintza-garapena erraztea, horretarako, ekimen publikoko jarduketak egin ahal izateko lurzorua lortzea, eta, batik bat, babes publikoko araubide bati atxikitako etxebizitzak eraiki ahal izatea ezartzen ditu. Halaber, jarraian legeak ondasun eta baliabideen xedea zehaztera dator, eta horien artean zuzkidura publikoak eta sistema orokorrak eraikitzeko obrak egitea eta Udal-ekipamendu kolektiboak eraikitzea edo birgatztea eta hobetzea.

Kasu honetan, trukaketaren aukera eta egokitasun Memoriak permutaren ondorioz udalak hartuko lituzkeen lursail pribatuen inguruan (621 zk.ko finka) honako aspektuak azpimarratu ditu:

1.- Arrazoi urbanistikoak, udalaren hiri antolaketarekin loturikoak.

Mendibil baserriko lurak izandakotik jabetza erregistroko 621 zk.ko finkan gelditzen diren lurak Katastroko 4. poligonoko 40 eta 46 partzelak dira. Hauek Mendibilko etxebizitzaren sustapena egin zenean, udalaren alde lorturiko zesioz, publiko bihurtu ziren 56.000 m²ko eremuaren jarraian daude eta praktikan egungo Mendibilko parkea den sistema orokorraren muga egiten dute, nahiz eta landa lur bezala sailkatuak egon.

Oiartzungo planeamendu orokorraren errebisioaren prozesuan, 2015eko martxoaren 25ean behin betiko onarpena jaso zuen dokumentuaren idazketa lanetan jasotako Memorian, lurralde eredu zehatz baten aldeko apustua egin zen. Izan ere, sistema polinuklearra eta zentralizatua hautatu zen eta ondorioz Elizalderen erdigune izaera berretsi eta berau inguratuko duen eraztun berdea eta ekipamenduen lehentasunezko kokalekua duen eta izango duen babes lurraldea sortzen zen, almendra itxurarekin. Eraztun hori, hegoaldetik bidegorriraino zabaltzen da, eta gero Oiartzun ibairaino eta hiri garapenen muga gaur egungo Plan Orokorra sailkatzen duen hirilur eta lur hirigarrien mugarekin bat egiten du, ELI-6 eremu urbanistikoaren garapenarekin amaiera izango lukeena. Inguru horretan lursail publikoak eta pribatuak daude eta azken hauek eskuratzea eta publikoak bihurtzea lehentasunezko helburutzat jotzen da.

Guzti hori kontuan izanda, orain eskuratzeko aukera dagoen lur multzo hori, 40.000 m² baino gehiagoko azalerarekin, eraztun berde horren parte nabarmena eta estrategikoa da eta udalaren jabetza Mendibil parkearen eta hilerriaren hegoaldetik bidegorriraino osatzera dator. Zentzu horretan, Oiartzungo bidegorria, lurraldearen eta oinezko ibilbideen egiturazko elementu bezala indartzera dator eta baita Oiartzunen biztanlego gehien duen Elizalde erdiguneko etorkizuneko gune librean sistema orokorraren sarea indartzera. Plan Orokorreko UGA-1, UGA-3 eta ELI-2 eremuetako egungo parkearen sistema orokorrari azalera hau gehituz, 100.436 m²ko azalera, udalerriko berdegune publiko handiena osatzen da.

2.- Kanposantua eta beilatokiaren sistema orokorra zabaltzeko aukera.

Trukaketaren ondorioz hartuko lirakeen lurak, kanposanturaino iristen dira eta beilatokiaren ondoan daude. Beilatokiaren azpiegitura, gaur egun 2 lagunentzako lekua duena, urtean zehar maiz gelditzen da tokirik gabe eta etorkizunean zabalpen bat izateko aukera asko daude. Gauzak horrela, inguruko lurak publikoak izatea lana erraztuko luke eta zabalpena gauzatzeko kudeaketa erraztu.

3.- Nekazaritza arloan sustapen-programarekin jarraitzeko aukera.

Oiartzungo Udalak 2016. Urtean LURBIZI egitasmoa onartu eta martxan jarri zuen. Oiartzunen landalurrean lehen sektoreko erabilera bultzatzeko udal ekimena izan zen eta egunarte darrai. Udalak nekazaritzarako erabilitako lurren galera eta lehen sektorearen gainbehera tendentzia aldatu eta elikagaien burujabetza maila berreskuratzen hasteko bitartekoak jartzea erabaki zuen eta bide horretan lehen sektorean jardutea nahiko luketen herritarrei erantzuna bilatzen laguntzea. Horretarako, lurra denez baliabide, ahalmen gehien duten lurak ezagutu eta jabeekin harremana egin ondoren, sail horien nekazal erabilera sustatzea, jarduera horretan ari nahi dutenen artean, lortu zuen.

Egitasmoa martxan jartzeko Behemendirekin, Landa Garapeneko Elkartarekin, hitzarmena izenpetu zuen eta bere bitartez, eta udalaren laguntzaz, hainbat landalurre nekazaritza proiektu zehatzetara lotu dira. Trukaketan hartuko lirakeen 4 ha. pasa lurretan, basoaz gain, nekazaritzarako lur aproposak daude. Gainera, lur horiek erabilerrazak dira sarrera-irteerarako herri-bidetik akzesoa dutelako. Ondorioz, Lurbizi programan bidez nekazaritzarako aktibatutako lur multzoa handitzeko bideragarritasuna eta ahalmena dute.

IV.- Udal arkitektoak egindako balorazio txostenaren arabera, 2 aldean ondasunak oso antzeko balorea dute. Partikularraren lurren balorea ELI-2ko desjabetzapen espedientea Herrialdeko Nahitaezko

Desjabetzapen Epaimahaiak ezarritakoa da, hau da, baratza 24,48 €/m²ko, larrea 15,79 €/m²ko eta basoa 6,04 €/m²ko, guztira 661.334,68 €. Udalaren lurak baloratzeko berriz, 2015. urtean egindako erosketan erabilitako balorea mantenduko da, hau da, 103,47 €/m²ko. Trukaketarako lortutako akordioaren data eraguneratuz gero, permutarako tratua 2021eko abenduaren lehen lortu zenez, erosketa egin zen 2015/07/01 datatik, % 11,1ko eguneratzea aplikatu behar zaio, 114,96 €/m²ko, guztizko balorea 666.877,21 € izanik. Gauzak horrela 5.767,54 €tako diferentzia dago udalaren alde.

V.- Bukatzeko, udal idazkariak egindako txostenaren arabera, prozedura ezarri da eta trukatu beharreko ondasunen balorazioa kontuan izanda, ez da eragozpenik bere burutzeko ezarritako tramiteen arabera. Izan ere, baloreek ez dute balio handiena duenaren %40 baino alde handiagoa, eta Euskal Autonomia Erkidegoko organo eskudunaren baimenik gabe egin liteke, haien balioa korporazioaren urteko aurrekontuko baliabide arrunten %25 baino txikiagoa delako. Horrela egiaztatzen da udal kontuhartzaileak egindako txostenaren arabera.

Guzti honen ondorioz, 2023ko maiatzaren 8ko Hirigintza Batzordearen aldeko diktamenarekin adostasunean, Inmobiliaria de Orio Txoko Txiki S.L. ren jabetzakoa den Mendibil baserriko lurak izandakoak eta ELI-6 eremuko Oiartzungo udalarena den eraikigarritasunaren arteko trukaketa interes orokorarentzat oso onuragarria dela esan liteke, eta gauzak horrela, Udalbatzak honako erabakia hartu du:

LEHENA.- Inmobiliaria de Orio Txoko Txiki S.L. enpresak lur trukaketa egiteko aurkezturiko eskaera onartzea eta idazki honen I. eta II. ataletan jasotako ondasunen arteko lur-trukaketa onartzea, interes publikoarentzako oso onuragarria delako, udalak eskuratzen dituen ondasunak hirigintzaren ikuspuntutik 2015eko Plan Orokorra diseinaturiko Elizalderen eraztun berdearen parte nabarmena eta estrategikoa delako eta udalaren jabetza Mendibil parkearen eta hilerriaren hegoalde bidegorriraino osatzera datorrelako. Zentzu horretan, Oiartzungo bidegorria, lurraldearen eta oinezko ibilbideen egiturazko elementu bezala indartzera dator eta baita Oiartzunen biztanlego gehien duen Elizalde erdiguneko etorkizuneko gune libreen sistema orokorraren sarea indartzera. Bigarrenik, kanposantua eta beilatokiaren sistema orokorra zabaltzeko aukera ematen duelako eta, azkenik, Lurbizi programan bidez nekazaritzarako aktibatutako lur multzoa handitzeko bideragarritasuna eta ahalmena ematen duelako.

BIGARRENA.- Udal arkitektoak egindako balorazioaren arabera, udal ondasuna 666.877,21 €tan baloratzea eta partikularrarena, 661.334,68 €tan. Ondorioz, 5.767,54 €tako diferentzia dago udalaren alde eta Inmobiliaria de Orio Txoko Txiki S.L. ek ordaindu beharko du.

HIRUGARRENA.- Trukaketa honen formalizatzeko gastuak legearen arabera, alde bakoitzak ordainduko ditu eta alkate jauna izendatzen da formalizaziorako aktoak sinatu ditzan, horien artean eskritura publikoa.

LAUGARRENA.- Udalaren ondarrerako hartuko diren ondasunak udal inbentariora sartuko dira eta honako atxikipena egiten da:

- a) Hirilur bezala sailkaturiko ELI-2D eremuan sartzen den 207,32 m² zatia, hilerriaren sistema orokorrera.
- b) Landalur bezala sailkaturiko Katastroko 4. Poligonoko 40 eta 46 partzelak, hurrengo Plan Orokorren aldaketa edo berrikuntzan aisialdi eta eremu libreen sistema orokorrera atxikituko dira.

BOSTGARRENA.- Udalak lur-trukaketan emango duen lursaila, J.M. Mitxelena Rezola jaunarekin 2010ean egindako lur trukaketaren ondorioz eskuraturikoa, Jabetza Erregistroko 18.940 finka, 549,83 m²ko azalera duena, gaur egun behin behingo aparkalekuaren erabilera du (Ormazabalenea). Honen

inguruan lursail horren jabe bihurtuko den enpresak behin behingo aparkaleku erabilera mantentzeko baimena eman du beti ere udalak mantenimenduaz, konponketaz eta kontserbazioaz arduratuz gero, aparkaleku erabilera luzatzen den bitartean, eta bertan sor daitezkeen kalteak udalaren aseguruak estaltzen baditu. Eskaera onartzea erabakitzen da eta udal zerbitzuen jakinaren gainean jartzea, zerbitzu teknikei zein aseguru polizen kudeaketa egiten duenari jakinaraziaz.

Ondoren gaia bozkatu egin da.

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	13	EHBildu, EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

Beraz, gaia aho batez onartu da aldeko 13 botorekin (EHBildu, EAJ/PNV).

- V -

TXARONDO HERRI-BIDEA JABARI PUBLIKOKO ONDASUNA BERRESKURATZEKO ESPEDIENTEAN ALEGAZIOAK EZEZTEA ETA BERRESKURATZE ERABAKIA BERRESTEA.

Udal Osoak, 2023ko martxoaren 1ean egindako batzarrean, Txarondo herri-bidea itxi izanagatik jabari publikoko ondasuna berreskuratzeko espedientea hastea erabaki eta Oiartzungo Herri Bideen Inbentarioko “998-1000 Txarondo bidea” giltzatutako itxiturarekin ixterakoan erabilera publikoko ondasunean egindako usurpazio aldentzeko jabari publikoko ondasuna berreskuratzeko espedientea martxan jartzea eta abiaraztea ebatzi zuen, interesdunei hamabost eguneko entzunaldia ematearekin batera.

Erabakiaren jakinarazpena Ignacio Pagadizabal Rodriguez jaunari eta Jose Miguel Irastorza Arandia jaunari bidali zitzairen eta esandako epean azken honek alegazio idatzia aurkeztu zuen.

Mendi eta ingurumen udal teknikariak egindako txostenaren arabera, alegazio-idazkiak 3 arrazoi adierazten ditu: bata, itxituraren helburua lapurretak ekidin eta segurtasuna bermatzea dela; bigarrena, 2017ko azaroaren 13an itxitura jartzeko baimena eskatu zuela eta ez zuela erantzunik jaso, eta gainera irekitzeko giltzaren kopia bat utzi zuela Udaltzaingoan; eta hirugarrena, Udalak, Portuberriko depuradoran, gisa horretako itxitura jarria duela herri-bidean.

Mendi teknikariaren txostenak 3 arrazoiak ezezten ditu ez delako onargarria ondasun pribatuak babesteko herri bideak ixtea eta, Portuberriko depuradoraren pareko herri-bidean Udalak jarritako atea ezin delako alderatu. Izan ere, Portuberriko depuradorak zerbitzu publiko bat ematen du eta instalazioaren segurtasuna bermatzeko jarri da atea; bestalde, Portuberriko depuradorako bidearen itxitura instalazioaren parean jarrita dago eta bidearen zoladura hor bertan amaitzen da. Puntu horretatik aurrera ibilgailuek ez dute aukerarik herri-bidean aurrera jarraitzeko, oinezkoentzako da bakarrik, eta jarritako atea oinezkoak pasatzea libre uzten du. Ez du eragiten, beraz, erabilera murrizketarik. Aldiz, Txarondo herri-bideko itxituraren kasuan, zoladura Txarondoerrota baserriraino iristen da (300 m) eta itxiturak ibilbide guzti hori egiteko sarbidea oztopatzen die ibilgailuei. Horrek hainbat eragozpen sortzen ditu ondasun publikoen mantenua egiterakoan edota zerbitzuetan (adibidez ur eta elektrizitatearen irakurketak egiterakoan).

Horrezaz gain, Hirigintzako teknikari juridikoak haren txostenean eransten du herri bidea izaeraz jabari publikoa den aldetik, besterenezina, bahiezina eta preskribaezina dela, eta babes juridiko osoa duela

usurpazioen aurrean. Horregatik, ondasun honen inguruko eskaera eta partikularren tramiteak erantzuten ez direnean isiltasuna ezezkoa da beti, 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, bere 24 artikuluan ezartzen duen bezala.

Ondorioz, Ingurumena eta Mendiak Batzordeak 2023ko maiatzaren 8an egindako bilkuran emandako aldeko diktamenarekin adostasunean, honako akordioa hartu du Udalbatzak:

LEHENA.- Txarondo herri-bidea itxi izanagatik jabari publikoko ondasuna berreskuratzeko hasitako espedienteari Jose Miguel Irastorza Arandia jaunak aurkeztutako alegazioak ezestea eta Udal Osoak, 2023ko martxoaren 1ean, egindako batzarrean harturiko erabakia berrestea.

BIGARRENA.- Ignacio Pagadizabal Rodriguez eta Jose Miguel Irastorza Arandia errekeritzea, 15 eguneko epean, Udal honetako jabari publikoko ondasuna lehengo egoerara itzultzeko beharrezko lanak egin ditzatela, hura usurpatuz egindako itxitura kenduz.

HIRUGARRENA.- Errekerituari ohartaraztea, epe hori iraganda, Udalak, bere edo kanpoko langileen bidez, gauzatuko duela egintza, gastu guztiak, ordainsari teknikoak barne, beraien kontura izango direlarik.

Ondoren gaia bozkatu egin da.

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	13	EHBildu, EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

Beraz, gaia aho batez onartu da aldeko 13 botorekin (EHBildu, EAJ/PNV).

- VI -

OIARTZUNGO UDAL MUGAPEAN BIDAIARIEN HIRI-GARRAIO ZERBITZUAREN KONTRATUAN AUTOBUSES CUADRA, S.A. ENPRESAK ESKATUTAKO ZERBITZU-KONTRATUAREN OREKA EKONOMIKOAREN BERREZARTZEA EZESTEA.

Oiartzungo udal mugapean bidaiarien hiri-garraio zerbitzuaren -Xorrola autobusa- kontratua Autobuses Cuadra, S.A. enpresari esleitu zitzaion 2019ko uztailaren 30ean. Kontratuaren iraunaldia 2022ko urrilaren 29an amaitu zen eta enpresa esleipendunak 2022ko azaroaren 24ko 6507 sarrera erregistroko zenbakia duen idatziaren bidez, kontratuaren oreka ekonomikoa berrezartzea eskatu zuen.

Kontratazio teknikariak gaiari buruz egindako txostenean, besteak beste, honakoa jaso du:

“LEGEDI APLIKAGARRIA

- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora (SPKL).
- 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duena.
- 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.

OINARRI JURIDIKOA

1. AUTOBUSES CUADRA, S.A. emakidadunak formalizatutako zerbitzu-kontratuaren berrorea ekonomikoa eskatu du, aipatzen dituzten hainbat arrazoiengatik – aurrerago banan banan aztertzen direnak-, kontratuaren oreka hautsi zelako.
2. Edonola ere, arrazoi zehatz horiek aztertu baino lehen, zilegi da aztertzea oro har SPKLak kontratuaren oreka ekonomikoa berrezartzeari buruz dioena, zerbitzu-kontratuei dagokionez:
 - a. SPKLa onartu zenetik, zerbitzu-kontratuaren eta zerbitzu-emakidako kontratuaren arteko desberdintasun nagusia ez da garatu beharreko prestazio mota, baizik eta erakunde esleipendunari helarazten zaion eragiketa-arriskua. SPKLren 15.2 artikulua ezartzen duenez, *“Zerbitzuak ustiatzeko eskubideak berekin ekarriko du emakidadunari eragiketa-arriskua transferitzea, aurreko artikulua erabiltzen apartatua adierazitako baldintzetan”*.
 - b. Hori horrela delako, SPKLk zerbitzu-emakiden kasuan oreka ekonomikoa berrezartzeko aukera aurreikusi du. Ez ordea, zerbitzu-kontratuaren kasuan, ez eta gainerako beste kontratuentzako. Beraz, ez dago legezko instrumenturik zerbitzu-kontratu bat berrerekatzeko, ulertu behar baita bere egikaritzean gertatzen diren merkatuaren gora-beherak kontratistak jasan behar duen arrisku eta menturaren printzipioaren barne sartu behar direla.
 - c. Gainera, estatuko Gobernuak, horren jabe izanik, martxoaren 1eko 3/2022 Errege Lege Dekretua onartu zuen, salgaien errepideko garraioaren iraunkortasuna eta kate logistikoaren funtzionamendua hobetzeko neurriei buruzkoa, eta 2020/1057 (EB) Zuzendarauaren transposizioa egiten duena, 2020ko uztailaren 15ekoa, 96/71/EE Zuzendarauari eta errepide bidezko garraioaren sektorean gidariak lekualdatzeko 2014/67/EB Zuzendarauari buruzko arau espezifikoak finkatzen dituena, eta obra-kontratu publikoetan prezioak berrikusteko salbuespenezko neurriei buruzkoa. Errege dekretu honek, salbuespen gisa, obra kontratuetan oreka ekonomikoa berrezartzeko aukera aurreikusi zuen, baina ez zuen halakorik egin hornidura eta zerbitzu kontratuentzat. Legegileak, erabaki kontziente bat hartu du, beraz, zerbitzu eta hornidura kontratuetan oreka ekonomikoa berrezartzeko aukera ez egoten jarraitzeko.
 - d. Hala ere, egia da jurisprudentzia gai honi buruz asko aritu dela, eta horren azterketa bat egingo da ondorioztatzeko legeak ez ahalbidetu arren, bidezkoa den ulertzea adierazitako gasolio eta lan kostuen igoerak **kontratistak jasan beharreko arrisku eta menturaren printzipioaren barruan sartu behar diren**.
 - e. SPKLren 189. artikulua honako hau ezartzen du: *“Kontratuak beren klausulen arabera bete beharko dira, legerian administrazio publikoen alde ezarritako prerrogatiben kalterik gabe”*.

SPKLren 197. artikulua, bere aldetik, arrisku eta menturaren printzipioa finkatzen du kontratuak egikaritzean, eta honako hau aurreikusten du: *“Kontratistak arrisku eta menturara jardun beharko du kontratua egikaritzean”*.
 - f. **Arrisku eta menturaren printzipioari** buruz, Auzitegi Gorenak 2009ko urriaren 27ko epaian, askotan errepikatutako doktrina zehaztuz, dio: *“el riesgo y ventura del contratista ofrecen en el lenguaje jurídico y gramatical la configuración de la expresión riesgo como contingencia o proximidad de un daño y ventura como palabra que expresa que una cosa se expone a la contingencia de que suceda un mal o un bien, de todo lo cual se infiere que es principio general en la contratación administrativa, que el contratista, al contratar con la*

Administración, asume el riesgo derivado de las contingencias que se definen en la Ley de Contratos del Estado y se basan en la consideración de que la obligación del contratista es una obligación de resultados, contrapuesta a la configuración de la obligación de actividad o medial. Ello implica que si por circunstancias sobrevenidas se incrementan los beneficios del contratista derivados del contrato de obra sobre aquellos inicialmente calculados la Administración no podrá reducir el precio mientras que si las circunstancias sobrevenidas disminuyen el beneficio calculado o incluso producen pérdidas serán de cuenta del contratista sin que éste pueda exigir un incremento del precio o una indemnización. (...)

- g. Beraz, behin kontratuaren prezioa ezarrita, eta kontratistaren arrisku eta menturaren printzipioaren arabera, prezioa ez da aldatuko, hargatik eragotzi gabe prezioak berrikustea, SPKLren 103. artikuluan ezarritakoaren arabera. Kasu honetan ez dira prezioak berrikusteko baldintza horiek ematen.
- h. Kontratuaren prezioak berrikusteaz gain, badira kontratistaren arrisku eta menturaren printzipioa salbuets dezaketen beste mekanismo batzuk.

Auzitegi Gorenak, 2015eko urriaren 28ko epaian, honako hauek aipatzen ditu: administrazio-kontratuen klausulen eraginkortasun loteslea eta aldaezintasuna, arrisku eta menturaren printzipioaren irismena, eta zer kasutan aitortzen duen gure ordenamenduak kontratistak eskubidea duela Administrazioari kontratuaren berrorka ekonomikoa eskatzeko, eta, alderdi horiei dagokienez, honako kontsiderazio hauek ezartzen ditu:

*“La primera es que el principio de la **eficacia vinculante del contrato y de la invariabilidad** de sus cláusulas **es la norma general** que rige en nuestro ordenamiento jurídico tanto para la contratación privada como para la contratación administrativa [...]. La segunda es que **la contratación administrativa se caracteriza también por llevar inherente un elemento de aleatoriedad de los resultados económicos del contrato**, al estar expresamente proclamado por la ley el principio de riesgo y ventura del contratista. Un elemento de aleatoriedad que significa que **la frustración de las expectativas económicas que el contratista tuvo en consideración para consentir el contrato no le libera de cumplir lo estrictamente pactado ni, consiguientemente, le faculta para apartarse del vínculo contractual o para reclamar su modificación.***

*La tercera es que en nuestro ordenamiento jurídico ha sido tradicional establecer unas **tasadas excepciones a esa aleatoriedad de los contratos administrativos, consistentes en reequilibrar la ecuación financiera del contrato únicamente cuando se ha producido una ruptura de la misma por causas imputables a la Administración ("ius variandi" o "factum principis"), o por hechos que se consideran "extra muros" del normal "alea" del contrato por ser reconducibles a los conceptos de fuerza mayor o riesgo imprevisible. Lo cual significa que no toda alteración del equilibrio de las prestaciones del contrato da derecho al contratista a reclamar medidas dirigidas a restablecer la inicial ecuación financiera del vínculo, sino únicamente aquellas que sean reconducibles a esos tasados supuestos de "ius variandi", "factum principis", y fuerza mayor o riesgo imprevisible.***

Estatuko Abokatutza Orokorrak ere aipatzen ditu kasu horiek 2019ko otsailaren 1eko txostenean:

“La mayor onerosidad sobrevenida de una relación contractual puede resultar de tres supuestos diferentes: 1) modificación del objeto del contrato en virtud del ejercicio de la potestad o prerrogativa que la legislación sobre contratación pública atribuye a estos efectos a la Administración contratante; 2) adopción de disposiciones o medidas de intervención u ordenación económica cuyos efectos inciden o pueden incidir en la relación contractual; 3)

hechos o acontecimientos, imprevistos o imprevisibles al tiempo de la celebración del contrato, y que resultan completamente ajenos a la Administración contratante. (...)”

Bestalde, Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak (aurrerantzean, EKPAB) honako hau dio 38/2020 Txostenean: *“A este respecto cabe recordar que, como ya señalamos, las excepciones al principio de riesgo y ventura que pueden justificar un reequilibrio económico del contrato en nuestro derecho quedan limitadas a la modificación del contrato (ius variandi), al dictado de disposiciones o actos de la Administración que se impongan con carácter obligatorio al contratista (factum principis), o a hechos que exceden del normal "alea" del contrato por ser reconducibles a los conceptos de fuerza mayor o riesgo imprevisible.”*

- i. Beraz, eta **oro har, kontratista kontratuaren arabera hitzartutakoaren mende dago**, eta kontratua bete behar du, klausuletan ezarritakoaren arabera; arrisku eta menturaren printzipioa ere bete behar du, eta kontratua gauzatzearen ondoriozko kontingentziak jasan behar ditu. Hala ere, printzipio hori salbuetsi egin daiteke, azaldu den bezala, hainbat mekanismoren arabera: prezioen berrikuspena, *“ius variandi”*, *“Factum principis”*, ezinbesteko kasua eta *aurreikusiezinezko arriskua*.
- j. Agerikoa denez ez gaudela lehenengo lau kasuetako batean ere –; izan ere, (i) ezin dira prezioak berrikusi (ez dira ematen horretarako legez aurreikusitako kausak); (ii) ez da bidezkoa kontratua aldatzea (*ius variandi*), izan ere, EKPABren arabera, legezko kontratualdaketak kontratuaren objektuaren aldaketari dagozkionak dira, hau da, prestazioari buruzkoak, eta ez prezioari buruzkoak; (iii) ez da eman Administrazioaren xedapenik edo egintzarik kontratistari nahitaez ezarri zaionik (*factum principis*) – aurrerago aztertuko den moduan-, eta (iv) ez dago 239. Artikuluan zehaztutako kausarik ezinbesteko kasutzat jotzeko – aurreikusiezinezko arriskua geratuko litzateke.
- k. *“Aurreikusiezinezko arriskuari”* dagokionez, Auzitegi Gorenak, 1979ko abenduaren 12ko epaian, arrisku eta menturaren printzipiotik salbuetsita geratzeko bide izan dadin, honakoa dio: *“las imprevisibilidades del hecho, suceso o circunstancia que ocasiona la mayor onerosidad, ya que si estaba previsto o era previsible, se entiende que el deudor contrató el riesgo, debiendo existir la posibilidad del cumplimiento del contrato en cuestión, aunque se agrava mucho la prestación del deudor, no bastando el simple quebranto en los beneficios del deudor es preciso que el cumplimiento de la prestación resulte excesivamente oneroso para el deudor o, incluso ruinoso por causas extrañas y exteriores al propio contrato, lo que, en terminología francesa se llamó "bouleversement", debiendo, por último, cumplirse el contrato a pesar de la onerosidad de la prestación o dificultades de su ejecución.(...)”*
- l. Hala, egitate, gertaera edo inguruabar bat aurreikusita bazegoen edo aurreikusteko modukoa bazen kontratistak Administrazioarekin kontratatu zuenean, ulertu behar da arriskua bere gain hartu zuela, eta kontratua bete behar zuela, azkenean arriskua gerta zitekeen arren. Kontingentziaren aurreikusgarritasunari eta arrisku eta menturaren printzipioan sartzeari dagokionez, Auzitegi Gorenak honako hau ezarri zuen 1988ko maiatzaren 6ko epaian, eskatzailearen antzekoa den eskaera bati erantzunez: *“(…) la subida del índice de precios y salarios, determinante de la procedencia de la revisión en la fecha establecida, es un **suceso contingente pero previsible aún a corto plazo**, incluso anterior al de la data revisoria, **en épocas como las actuales de inestabilidad económica, que debe ser incluida en el concepto jurídico de riesgo y ventura** a cargo del contratista, porque pudo ser ponderado en el cálculo de sus previsiones que frente a la legítima aspiración de obtener beneficios, asumió el riesgo de sufrir pérdidas como consecuencia de cálculos erróneos o de la aparición de inesperadas*

circunstancias incidentes en la ejecución del contrato, porque éstas son las consecuencias del carácter aleatorio de este tipo de relaciones jurídicas”.

- m. Lehengaien prezioa igotzeari buruz, zehazki petrolioaren eta haren eratorrien prezioen ohiz kanpoko igoerei buruz, eta horrek kontratistaren arrisku eta menturaren printzipioarekin eta aurreikusiezinezko arriskuaren doktrinaren bidez salbuestearekin duen loturari buruz, Auzitegi Gorenak bere iritzia eman du hainbat epaitan; besteak beste, 2006ko maiatzaren 6an, 2009ko ekainaren 16an, urriaren 27an eta azaroaren 10ean eta 2020ko irailaren 9an (guztiak ere ezlesleak). Obra-kontratu batean asfaltozko auzilariaren prezioak igotzeari buruzko 2009ko urriaren 27ko epaian, Auzitegi Gorenak honako hau adierazi zuen:

*“(...) En nuestra Sentencia de 18 de abril de 2008 (recurso de casación nº 5033/2006) pusimos de manifiesto que “(...) la doctrina del riesgo imprevisible, enlazada a la de la cláusula rebus sic stantibus, exige que, como consecuencia de la aparición de un riesgo que no pudo ser previsto al tiempo de celebrarse el contrato, se alteren sustancialmente las condiciones de ejecución del mismo, de modo que la prestación pactada resulte mucho más onerosa para una de las partes de lo que inicialmente podía preverse”. Por otro lado, tal y como expusimos en nuestra Sentencia de 25 de abril de 2008 (recurso de casación nº 5038/2006): “Es indudable que la imprevisibilidad contempla sucesos que sobrevienen con carácter extraordinario que alteran de forma muy notable el equilibrio económico y contractual existente en el momento del contrato pues sobrepasan los límites razonables de aleatoriedad que comporta toda licitación. Implica, por tanto, aplicar los principios de equidad (art. 3.2 C.Civil) y de buena fe (art. 7.1 C.Civil) por la aparición de un riesgo anormal que cercena el principio del equilibrio económico-financiero entre las partes pero sin atacar frontalmente el principio de riesgo y ventura esencial en la contratación pública. Habrá de atenderse al caso concreto ponderando las circunstancias concurrentes. Tal cual se ha dicho en la reciente sentencia de 18 de abril de 2008, recurso de casación 5033/2006, respecto una situación análoga, es claro que, tal cual refleja la Sala de instancia, los precios del petróleo se liberalizaron tras la Orden Ministerial de Hacienda de 1 de octubre de 1986. En consecuencia, en la fecha de adjudicación del contrato, 1993, ya estaban liberalizados los precios constituyendo por ello un riesgo si incrementaban el precio o una ventura en el caso de que aquel disminuyese. (...) **Debe atenderse a las circunstancias de cada contrato en discusión para concluir si se ha alterado o no de modo irrazonable ese equilibrio contractual a que más arriba hemos hecho mención. La incidencia del incremento ha de examinarse sobre la globalidad del contrato pues un determinado incremento puede tener mayor o menor relevancia en función de la mayor o menor importancia económica del contrato y de los distintos aspectos contemplados en el mismo. (...) Por último, respecto de la invocación de la doctrina relativa al enriquecimiento injusto, hemos de recordar, que no hay tal en el supuesto de autos, en el que se trata de un contrato regido por el principio de riesgo y ventura del contratista (...) como esta Sala ha declarado, **el solo incremento de los precios de los materiales del contrato, dados los principios por los que el mismo se rige sólo puede alcanzar trascendencia cuando se produzca un verdadero y real desequilibrio económico financiero, que, en el presente caso y conforme acaba de señalarse, no ha quedado acreditado para la Sala de instancia. (...)”*****

- n. 2020ko irailaren 9ko epaian, Auzitegiak berriro azpimarratzen du kontratistaren arrisku eta menturaren printzipioa, bai eta haren salbuespen bat izan daitekeen arrisku aurreikustezinaren teoria ez hautematean ere:

“(...) Como reiteradamente ha recordado el Consejo de Estado, en los contratos de obra - criterio asumido por nuestra jurisprudencia-, salvo fuerza mayor (lo que aquí no acaece), la ejecución de la obra se realiza a “riesgo y ventura” del contratista que asume tanto el mayor

beneficio como la mayor pérdida derivada de la actividad empresarial en el plazo de ejecución de la misma. La Administración se limita a garantizar un "aleas" normal en la variación de materiales en los términos de la aplicación de la cláusula de revisión de precios, cuando esta procede y así se estipula en el contrato.

El principio de riesgo y ventura no cede ante una alteración sobrevenida de las circunstancias sino cuando ésta (fuera de los supuestos de fuerza mayor) es de tal índole que comporta una quiebra radical del equilibrio económico financiero contractual, por su excesiva onerosidad, por su imposible compensación mediante la revisión de precios cuando así esté pactada -como aquí acontece, revisión que fue efectuada y asumida, sin protesta, por la hoy recurrente- y por suponer una frustración completa de los presupuestos contractuales (todo ello conjuntamente). (...)

*En el contrato de obras la obligación principal es la de ejecutar la misma, no la del suministro de materiales, y **el precio no se fija por el de los materiales**, sino por el de la realización de la obra.*

Como recuerda nuestra sentencia de 10 de noviembre de 2009 (casación 930/07), reiterando y transcribiendo parcialmente la de 25 de abril de 2008, desde el momento en que los precios del petróleo se liberalizaron por la ya lejana Orden del Ministerio de Hacienda de 1 de octubre de 1986, el contratista sabe de las fluctuaciones, a veces muy importantes, de los precios del crudo y sus derivados, algo que ha de tener en cuenta a la hora de efectuar la correspondiente oferta, asumiendo el riesgo económico que dichas subidas pueda comportar en el beneficio esperado. En todo caso, el fuerte incremento del precio de los litigantes bituminosos ha de ponerse en relación con el precio total y duración de la obra (...)

- o. Aurreko guztia kontuan hartuta, **ez dirudi kasu honetan kontratuaren oreka ekonomikoa berrezartzea bidezkoa denik**: legez ez dago aukera hau aurreikusita eta jurisprudentziak erabaketsua ez izateaz gain- ez ditu babestu orokortasun batean halako eskaerak, antzekotasuna izan dezaketen kasuetan. Hala ere, enpresak egindako alegazioei buruzko gogoeta zehatza egingo da.
3. Alde batetik, enpresak adierazten du langile gehigarriak kontratatu behar izan zituela bi langilerekin ez zelako nahikoa zerbitzua emateko, eta langile horiek astelehenetik ostiralerako zerbitzura atxikitu zirelako, eta horrek kostu gehigarriak ekarri zizkiola. Argi utzi behar da zerbitzua emateko beharrezko ordu kopurua eta langileei aplikagarri zitzaizen lan-hitzarmenaren lanaldia kontuan hartuta, inongo momentuan zela posible bi langilerekin bakarrik zerbitzua ematea, ez kontratuaren hasieran, ez exekuzioan zehar, ez-eta aurreko kontratuan bertan ere, zeinean enpresa berdina zen esleipendun. Beraz, enpresak langile gehiago kontratatzeke beharra ez zen aurreikusi ezina, eta ez da administrazioaren erabakien ondorio.
4. Beste alde batetik, zerbitzura atxikitutako autobusaren egoerak eta zerbitzuaren ezaugarriek mantenu kosteak asko igotzea eta erreserbako autobusa asko erabili behar izana ekarri zuela adierazten du. Zerbitzuaren eta autobusaren ezaugarriak lizitazioa arautzen zuten baldintzen agerian argi ezarrita zeuden enpresak aurkeztea erabaki zuenean. Are gehiago, enpresa berak ematen zuen zerbitzua aurreko lizitazioaren pean, eta, beraz, inork baino hobeto ezagutzen zituen zerbitzuaren eta autobusaren baldintzak eta egoera. Beraz, eskaintako prezioarekin ez bazen nahikoa gastu horiei aurre egiteko, ezin du orain esan gastu horiek aurreikusi ezinak zirenik. Aurreikusi ez bazituen, arrisku eta menturaren printzipiopean sartuta ulertu behar dira.
5. Argudiatzen du, ere, COVIDaren pandemia garaian ezarritako neurriek gastu gehiago egitera eramán zituela, eta udalak ez ziola konpentsaziorik eman. Garaiko araudiak, besteak beste 8/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 17koa, COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko premiazko ezohiko neurriei buruzkoak, COVIDak eragindako egoerari

aurre egiteko neurriak ezarri zituen. Lege Dekretuaren 34 artikulua kontratuaren oreka ekonomikoa berrezartzeko sistema berezi bat ezarri zuen, kontratu-araudian eta legezko doktrina finkatua aurreikusitakoak bestelakoa. Estatuko Abokatutza Nagusiak adierazi zuen bezala (Aholkularitza Zerbitzuen Zuzendariordetzaren 2020ko apirilaren 1eko txostena), 8/2020 Errege Lege Dekretua lege-mailako araua da, denbora-ondorio mugatukoa, eta salbuespenezko egoera bati erantzuten zion (COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren aurreko alarma-egoeraren adierazpena). Horrenbestez, kausa honengatik ezin izango dira kontratua berrorekatzeko beste arrazoi batzuk argudiatu, egoera horrek eragindakoak izan ezik, ezinezkoa egiten baitute kontratua gauzatzea. Beraz, **ezin dira aplikatu berrorekari buruzko arau orokorrak**, osasun-krisiak eragindako diru-sarrera txikiagoak edo kostu handiagoak arintzeko, kontratu guztiak berriro negoziatu daitezten. Hau da, zerbitzu publikoak legez baimenduta jarraitzen badu alarma-egoerak irauten duen bitartean, ezin da berrorekatu kontratuen legerian jasotako beste arrazoi batzuegatik (factum principis, ezinbesteko arrazoiak edo aurreikusi ezinezko arriskua), 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 34. artikulua lehentasunez aplikatzen zaielako Covid-19aren kontratu-ondorioei. Tresna horiek bertan zehaztutako prozedura eta epearekin ez ziren egin eta, ondorioz, orain ez da bidezko orain berriro aztergarri izatea.

6. Gasolioa eta erregaien prezioaren igoera ere argudiatzen du eskatzaileak. Gastu hauen igoeragatik oreka ekonomikoa berrezartzeko aukera eza aztertua izan da lehenengo puntuan.
7. Ordutegi gehikuntza bat adostu zuela udalak aipatzen du bere idatziaren 13. puntuan enpresak. Argi geratu behar da ordutegi gehikuntza hori enpresaren eskaintzaren ondorio zela, enpresak berak eskaini baitzuen bere eskaintzan eta eskaintzako esleipen-prezioaren barruan. Egindako eskaintza horrek bere lan-kostuetan izandako inpaktua ezin du orain udalaren gain jarri, erabat aurreikusgarria zelako eta ezin bazuen jasan, ez eskaintzea besterik ez zuen.
8. Azkenik, enpresak dio udalak berariaz onartu zuela kontratuaren oreka berrezartzeko aukera 1411/2022 Alkatetza Dekretuan, enpresari kalteordain bat ordaindu ziolako ezeztatu zen luzapen baten ondorioz bi hilabetez zerbitzua eman behar izateagatik. Adierazi behar da dekretu horretan ebatzi zena ez zela inolaz ere kontratuaren oreka berrezartzea. 1348/2022 Alkate Dekretuak aurretik onartutako kontratuaren luzapenaren kontrako errekurtsioa onartu zuen. Zerbitzuak, baina, ematen jarraitu zuen luzapena onartu eta hura ezeztatu zen arte, gutxi gora behera bi hilabetez. Horren ondorioz, udalak onartu zuen bi hilabete horietan kosteak igo baziren, ez zeudela kontratuaren arrisku eta menturaren barne, zerbitzua ezeztatutako luzapen baten pean eman zelako. Ondorioz, udalak onartu zuen bidezkoa ez zen aberaste bat izan zezakeela eta konpentsazioa bat eman zion enpresari bi hilabete horienegatik. Horrek ez du inolaz ere justifikatzen aurretik legez indarrean egon den kontratuaren oreka ekonomikoa berrezartzeko aukera.

Organo ebazlea Udal Osoko Bilkura da, kontratazio organoa hura baitzen SPKLaren Bigarren Xedapen Gehigarriaren baitan.”

Aurrekariak eta oinarri juridiko guzti hauek kontutan hartuta, eta Sektore Publikoko Kontratuen araudiaren eta toki-jardunbidearen araubideak ematen dizkion ahalmenen egikaritzan, 2023ko maiatzaren 10ean Obrak eta Zerbitzuak Batzordeak emandako aldeko diktamenarekin adostasunean, Udaltzak honako akordioa hartu du:

Bakarra.- Ezezteak Autobuses Cuadra, S.A. enpresak egindako zerbitzu-kontratuaren oreka ekonomikoa berrezarteko eskaera, aurretik aipatutako arrazioengatik.

Ondoren gaia bozkatu egin da.

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	13	EHBildu, EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

Beraz, gaia aho batez onartu da aldeko 13 botorekin (EHBildu, EAJ/PNV).

- VII -

ELORSORO KIROLDEGIA, MADALENSORO PILOTALEKUA ETA UDAKO IGERILEKUA UDAL INSTALAZIOEN ZERBITZU-EMAKIDA KONTRATUAREN OREKA EKONOMIKOA BERREZARTZEKO ESKAERA (4. HIRUHILABETEA).

2021eko urriaren 18an Oiartzungo Elorsoro kiroldegia, Madalensoro pilotalekua eta udalko igerilekua udal instalazioen zerbitzu emakidaren kontratua BPXPORT XXI, S.L. enpresari esleitu zitzaion eta kontratua 2022ko urtarrilaren 4an formalizatu zen.

Enpresa esleipendunak, 2023ko otsailaren 20ko 1298 sarrera erregistro zenbakiko idatziaren bidez, 2022ko urria-abendua tartean kontsumo energetikoaren kostuen igoerak eraginda izandako galerengatik aipatu kontratuaren oreka ekonomikoa berrezartzeko eskubidea enpresari aitortzea eskatu du eta ondorioz, 23.771,00 euro ordaintzea (BEZ gabe).

Gaiari buruz Kontratazio teknikariak egindako txostenak honakoa jasotzen du:

“AURREKARIAK

- I. 2021ko urriaren 18an Oiartzungo Udaleko Osoko Bilkurak hartu zuen erabakia Oiartzungo Elorsoro Kiroldegia, Madalensoro Pilotalekua eta Udako Igerilekua Udal instalazioen zerbitzu emakidaren kontratua BPXPORT XXI, S.L. enpresari esleitzekoa. Kontratua 2022ko urtarrilaren 4an formalizatu zen.
- II. 2023ko otsailaren 20ko idatziaren bitartez, enpresa esleipendunak honakoa eskatu du, hurrenez hurren:
 - *“que, teniendo por presentado este escrito, se sirva admitirlo y, teniendo por efectuadas las manifestaciones en él contenidas, tenga por solicitado el **RESTABLECIMIENTO DEL EQUILIBRIO ECONÓMICO DEL CONTRATO** de gestión, mediante concesión de servicios, de las instalaciones municipales Elorsoro Kiroldegia, Madalensoro Pilotalekua y Udako Igerilekua de Oiartzun suscrito con BPXPORT con fecha 4 de enero de 2022 y, tras los trámites oportunos, dicte resolución por la que acuerde **reconocer el derecho de BPXPORT a que se le restablezca el equilibrio económico del contrato por las pérdidas derivadas del incremento de los costes de consumo energético que ha tenido que soportar desde el mes de octubre hasta el mes de diciembre de 2022, y en consecuencia, abonar la cuantía total de 23.771 euros a favor de la misma (sin IVA)**”.*
- III. 2023ko maiatzaren 18an Oiartzungo udaleko arkitekto teknikoak txostena egin du, zehaztuz aurreko urteko epealdiarekin alderatuta, ez dela argi eta gasaren igoerarik egon; are gehiago, kostua gutxitu egin da gutxienez 30.358,63 eurotan.

LEGEDI APLIKAGARRIA

- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora (SPKL).
- 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duena.
- 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 3/2022 Errege Lege Dekretua, martxoaren 1ekoa, salgaien errepideko garraioaren jasangarritasuna eta kate logistikoaren funtzionamendua hobetzeko neurriei buruzkoa, eta 2020ko uztailaren 15eko 2020/1057 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten duena: Zuzentaru horrek arau espezifikoak ezartzen ditu 96/71/EE Zuzentaruari eta 2014/67/EB Zuzentaruari dagokienez, gidariak errepideko garraioaren sektorean lekualdatzeari dagokionez, eta salbuespeneko neurriak ezartzen ditu obra-kontratu publikoetan prezioak berrikusteari dagokionez – Zioen adierazpena.

OINARRI JURIDIKOA

BXPOR XXII SL emakidadunak 2022ko urtarrilaren 4an formalizatutako zerbitzu-emakidako kontratuaren berrorka ekonomikoa eskatu du, batez ere uste duelako energia-kontsumoaren kostuen neurrigabeko igoeraren ondorioz aurreikusi ezin zen arrisku bat gertatu dela, arrisku eta menturaren printzipioa salbuestea ahalbidetzen duena, eta, horrela, kontratuaren berrorka ekonomikoa justifikatzea.

Eskaera hori aztertzeko, beharrezkoa da hainbat gairen azterketa zehatza eta jarraitua egitea.

SPKL onartu zenetik, zerbitzu-kontratuaren eta zerbitzu-emakidako kontratuaren arteko desberdintasun nagusia ez da garatu beharreko prestazio mota, baizik eta erakunde esleipendunari helarazten zaion eragiketa-arriskua. SPKLren 15.2 artikulua ezartzen duenez, *“Zerbitzuak ustiatzeko eskubideak berekin ekarriko du emakidadunari eragiketa-arriskua transferitzea, aurreko artikuluen laugarren apartatuan adierazitako baldintzetan”*. 14.4 artikulua, bere aldetik, zera aurreikusi du:

*“ustiatzeko eskubideak, artikulua honen lehenengo apartatuan aipatzen denak, berekin ekarri beharko du emakidadunari obra horiek ustiatzeko eragiketa-arrisku bat transferitzea, horren barnean dela **demanda-arriskua edo hornidura-arriskua, edo bi arrisku horiek batera**. Demanda-arriskutzat hau hartzen da: kontratuaren objektua diren obren edo zerbitzuen demanda errealari zor zaiona. Eta hornidura-arriskutzat, berriz, kontratuaren objektua diren obren edo zerbitzuen hornidurari dagokiona; bereziki, zerbitzuen prestazioa eskariari ez egokitzekoa.*

Kasu honetan irizten zaio emakidadunak eragiketa-arrisku bat hartzen duela bere gain: emakidadunak bermatuta ez daukanean, funtzionamenduko baldintza normaletan, egindako inbertsioak berreskuratuko dituenik edo emakidaren xede diren obren ustiapenaren ondorioz izan dituen kostuak estaliko dituenik. Emakidadunak hartutako arriskuak merkatuko ziurgabetasunen aurreko esposizio erreal bat ekarri beharko du berekin, eta emakidadunak izan dezakeen galera zenbatetsi oro galera nominal hutsa ez izatea, baizik eta kontuan hartzeko modukoa.”

Beraz, eragiketa-arriskua emakidaduna merkatuaren berezko gorabeheren eraginpean geratzea dakarren arriskua da, alderdien kontroletik kanpo dauden faktoreetatik datorrena, eta eskari-arrisku batean edo hornidura-arrisku batean, edo bietan batera, zehazten dena. Zehazki, esan daiteke mota horretako emakidetan zeregin erabakigarria duela eskari-arriskuak; izan ere, erabiltzaileak askatasuna du

emakidadunak emandako zerbitzuak eskatzeko edo ez eskatzeko, irabaziak lortzeko behar besteko kopuruan, eta ez galerak lortzeko. Beraz, eragiketa-arriskua transferituta dagoela uler daiteke erabiltzaileak ez daudenean behartuta eskaintako zerbitzuak erabiltzera, bezero potentzialen kopurua zalantzazkoa denean, galerak gerta daitezkeenean egin beharreko inbertsioa bermatu gabe, eta kontratista behartuta dagoenean zerbitzua ematera, errentagarria ez izan arren (Andaluziako Juntako KETAren 203/2019 Ebazpena).

Bestalde, kontuan hartu behar da Zuzentarauaren 5.b) artikulua eta SPKLren 14.4 artikulua ezartzen dutela eragiketa-arriskuak **“merkatuko baldintza normaletan”** jarduten duela, eta, beraz, hala badagokio, **berroreka ekonomikorako baldintzak aparteko baldintzetan emango direla**. Eztabaidagarria izan daiteke salbuespenaren konkurrentzia, kontuan hartuta ez dela historiako lehen aldia energiaren prezioaren bat-bateko igoera handia gertatzen dela. Aitzitik, Espainiako Gobernua kontu horren gainean aritzen da martxoaren 1eko 3/2022 Errege Lege Dekretuan (3/2022 Errege Lege Dekretua, martxoaren 1ekoa, salgaien errepideko garraioaren jasangarritasuna eta kate logistikoaren funtzionamendua hobetzeko neurriei buruzkoa, eta 96/71/EE Zuzentarauari eta 2014/67/EB Zuzentarauari buruzko arau espezifikoak ezartzen dituen 2020ko uztailaren 15eko 2020/1057 (EB) Zuzentarauaren transposizioa egiten duena; eta aparteko neurriak ezarri dituen obra-kontratu publikoetan prezioak berrikusteari dagokionez), zeina obra-kontratuetakoa prezioen berrikuspenera mugatzen bada ere, zioen azalpenean hainbat baieztapen jasotzen dira, hala nola, *“lehengai jakin batzuen kostuaren ohiz kanpoko igoera”*, *“kontratu kopuru esanguratsu bat gauzatzea nabarmen zaildu da, kontratistek ikusi baitute nola kontratu horien ekonomia asko aldatzen zen kostu jakin batzuen ezohiko igoeragatik, aurreikusi ezina zena lizitazioaren unean”*, edo *“aparteko, salbuespeneko eta aurreikusi ezinezko inguruabarregatik”*.

Beraz, aipatu eragiketa-arriskuaren deskribapen horren arabera, eta kostuen igoera salbuespeneko delako onartuko balitz, arrisku hori ez litzateke sartuko kontratistari transferitutako eragiketa-arriskuaren barruan.

Horiek horrela, bidezko da aztertzea ea kontratistak jasan beharreko arrisku eta menturaren printzipioaren barruan sartu behar diren.

SPKLren 189. artikulua honako hau ezartzen du: *“Kontratuak beren klausulen arabera bete beharko dira, legerian administrazio publikoen alde ezarritako prerrogatiben kalterik gabe”*.

SPKLren 197. artikulua, bere aldetik, arrisku eta menturaren printzipioa finkatzen du kontratuak egikaritzean, eta honako hau aurreikusten du: *“Kontratistak arrisku eta menturara jardun beharko du kontratua egikaritzean”*.

Azkenik, zerbitzu-emakidei dagokienez, 290.4 artikulua honako hau ezartzen du:

“4. Egoera hauetakoren bat gertatuz gero, kontratuaren oreka ekonomikoa berrezarri beharko da, dagokion aldearen mesedetan:

a) Administrazioak artikulua honen 1. apartatuan aipatutakoetatik aldaketa bat egiten duenean hartan ezarritako inguruabarrak gertatuta.

b) Administrazio publiko emakida-emailearen jarduketek, emakidadunak bete beharrekoak izateagatik, kontratuaren ekonomiaren funtsa haustea eragiten dutenean zuzen-zuzenean.

Aurreko letretan aurreikusitako kasuetatik kanpo, kontratuaren oreka ekonomikoa berrezarri ahalko da soilik ezinbesteko kausek dakartenean zuzenean kontratuaren ekonomiaren funtsezko haustura.

Horrelakoetan, lege honen 239. artikuluan jasotako kausak hartuko dira ezinbesteko kausatzat.

Nolanahi ere, ez da izango oreka ekonomikoa finantzarioa berrezartzeko eskubiderik Administrazioaren azterlanean edo emakidadunak egin duen azterlanean eskaerari buruz egindako aurreikuspenak ez betetzeagatik.”

Arrisku eta menturaren printzipioari buruz, Auzitegi Gorenak 2009ko urriaren 27ko epaian, askotan errepikatutako doktrina zehaztuz, dio: *"el riesgo y ventura del contratista ofrecen en el lenguaje jurídico y gramatical la configuración de la expresión riesgo como contingencia o proximidad de un daño y ventura como palabra que expresa que una cosa se expone a la contingencia de que suceda un mal o un bien, de todo lo cual se infiere que es principio general en la contratación administrativa, que el contratista, al contratar con la Administración, asume el riesgo derivado de las contingencias que se definen en la Ley de Contratos del Estado y se basan en la consideración de que la obligación del contratista es una obligación de resultados, contrapuesta a la configuración de la obligación de actividad o medial. Ello implica que si por circunstancias sobrevenidas se incrementan los beneficios del contratista derivados del contrato de obra sobre aquellos inicialmente calculados la Administración no podrá reducir el precio mientras que si las circunstancias sobrevenidas disminuyen el beneficio calculado o incluso producen pérdidas serán de cuenta del contratista sin que éste pueda exigir un incremento del precio o una indemnización. (...)"*

Beraz, behin kontratuaren prezioa ezarrita, eta kontratistaren arrisku eta menturaren printzipioaren arabera, prezioa ez da aldatuko, hargatik eragotzi gabe prezioak berrikustea, SPKLren 103. artikuluan ezarritakoaren arabera. Kontratuaren prezioak berrikustez gain, badira kontratistaren arrisku eta menturaren printzipioa salbuets dezaketen beste mekanismo batzuk.

Auzitegi Gorenak, 2015eko urriaren 28ko epaian, honako hauek aipatzen ditu: administrazio-kontratuen klausulen eraginkortasun loteslea eta aldazintasuna, arrisku eta menturaren printzipioaren irismena, eta zer kasutan aitortzen duen gure ordenamenduak kontratistak eskubidea duela Administrazioari kontratuaren berrorka ekonomikoa eskatzeko, eta, alderdi horiei dagokienez, honako kontsiderazio hauek ezartzen ditu:

*"La primera es que el principio de la **eficacia vinculante del contrato y de la invariabilidad** de sus cláusulas es la norma general que rige en nuestro ordenamiento jurídico tanto para la contratación privada como para la contratación administrativa [...]. La segunda es que **la contratación administrativa se caracteriza también por llevar inherente un elemento de aleatoriedad de los resultados económicos del contrato**, al estar expresamente proclamado por la ley el principio de riesgo y ventura del contratista. Un elemento de aleatoriedad que significa que **la frustración de las expectativas económicas que el contratista tuvo en consideración para consentir el contrato no le libera de cumplir lo estrictamente pactado** ni, consiguientemente, le faculta para apartarse del vínculo contractual o para reclamar su modificación.*

*La tercera es que en nuestro ordenamiento jurídico ha sido tradicional establecer unas **tasadas excepciones a esa aleatoriedad de los contratos administrativos, consistentes en reequilibrar la ecuación financiera del contrato únicamente cuando se ha producido una ruptura de la misma por causas imputables a la Administración ("ius variandi" o "factum principis")**, o por hechos que se consideran "extra muros" del normal "alea" del contrato por ser reconducibles a los conceptos de **fuerza mayor o riesgo imprevisible**. Lo cual significa que no toda alteración del equilibrio de las prestaciones del contrato da derecho al contratista a reclamar medidas dirigidas a restablecer la inicial ecuación financiera del vínculo, sino únicamente aquellas que sean reconducibles a esos tasados supuestos de "ius variandi", "factum principis", y fuerza mayor o riesgo imprevisible."*

Estatuko Abokatutza Orokorrak ere aipatzen ditu kasu horiek 2019ko otsailaren 1eko txostenean:

*"La mayor onerosidad sobrevenida de una relación contractual puede resultar de tres supuestos diferentes: 1) modificación del objeto del contrato en virtud del ejercicio de la potestad o prerrogativa que la legislación sobre contratación pública atribuye a estos efectos a la Administración contratante; 2) adopción de disposiciones o medidas de intervención u ordenación económica cuyos efectos inciden o pueden incidir en la relación contractual; 3) **hechos o acontecimientos, imprevistos o imprevisibles***

al tiempo de la celebración del contrato, y que resultan completamente ajenos a la Administración contratante. (...)”

Bestalde, Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak (aurrerantzean, EKPAB) honako hau dio 38/2020 Txostenean: *“A este respecto cabe recordar que, como ya señalamos, **las excepciones al principio de riesgo y ventura que pueden justificar un reequilibrio económico del contrato en nuestro derecho quedan limitadas a la modificación del contrato (ius variandi), al dictado de disposiciones o actos de la Administración que se impongan con carácter obligatorio al contratista (factum principis), o a hechos que exceden del normal "alea" del contrato por ser reconducibles a los conceptos de fuerza mayor o riesgo imprevisible.**”*

Beraz, eta oro har, kontratista kontratuaren arabera hitzartutakoaren mende dago, eta kontratua bete behar du, klausuletan ezarritakoaren arabera; arrisku eta menturaren printzipioa ere bete behar du, eta kontratua gauzatzearen ondoriozko kontingentziak jasan behar ditu. Hala ere, printzipio hori salbuetsi egin daiteke, azaldu den bezala, hainbat mekanismoren arabera: prezioen berrikuspena, *“ius variandi”*, *“Factum principis”*, ezinbesteko kasua eta aurreikusiezinezko arriskua.

Agerikoaenez ez gaudela lehenengo lau kasuetako batean ere –; izan ere, (i) ezin dira prezioak berrikusi (ez dira ematen horretarako legez aurreikusitako kausak); (ii) ez da bidezkoa kontratua aldatzea (*ius variandi*), izan ere, EKPABren arabera, legezko kontratu-aldaketak kontratuaren objektuaren aldaketari dagozkionak dira, hau da, prestazioari buruzkoak, eta ez prezioari buruzkoak; (iii) ez da eman Administrazioaren xedapenik edo egintzarik kontratistari nahitaez ezarri zaionik (*factum principis*), eta (iv) ez dago 239. Artikuluan zehaztutako kausarik ezinbesteko kasutzat jotzeko – aurreikusiezinezko arriskua geratuko litzateke.

“Aurreikusiezinezko arriskuari” dagokionez, Auzitegi Gorenak, 1979ko abenduaren 12ko epaian, arrisku eta menturaren printzipiotik salbuetsita geratzeko bide izan dadin, honakoa dio: *“las imprevisibilidades del hecho, suceso o circunstancia que ocasiona la mayor onerosidad, ya que si estaba previsto o era previsible, se entiende que el deudor contrató el riesgo, debiendo existir la posibilidad del cumplimiento del contrato en cuestión, aunque se agrava mucho la prestación del deudor, no bastando el simple quebranto en los beneficios del deudor es preciso que el cumplimiento de la prestación resulte excesivamente oneroso para el deudor o, incluso ruinoso por causas extrañas y exteriores al propio contrato, lo que, en terminología francesa se llamó "bouleversement", debiendo, por último, cumplirse el contrato a pesar de la onerosidad de la prestación o dificultades de su ejecución.(...)”*

Hala, egitate, gertaera edo inguruabar bat aurreikusita bazegoen edo aurreikusteko modukoa bazen kontratistak Administrazioarekin kontratatu zuenean, ulertu behar da arriskua bere gain hartu zuela, eta kontratua bete behar zuela, azkenean arriskua gerta zitekeen arren. Kontingentziaren aurreikusgarritasunari eta arrisku eta menturaren printzipioan sartzeari dagokionez, Auzitegi Gorenak honako hau ezarri zuen 1988ko maiatzaren 6ko epaian: *“(…) la subida del índice de precios y salarios, determinante de la procedencia de la revisión en la fecha establecida, es un **suceso contingente pero previsible aún a corto plazo**, incluso anterior al de la data revisoria, en épocas como las actuales de inestabilidad económica, **que debe ser incluida en el concepto jurídico de riesgo y ventura** a cargo del contratista, porque pudo ser ponderado en el cálculo de sus previsiones que frente a la legítima aspiración de obtener beneficios, asumió el riesgo de sufrir pérdidas como consecuencia de cálculos erróneos o de la aparición de inesperadas circunstancias incidentes en la ejecución del contrato, porque éstas son las consecuencias del carácter aleatorio de este tipo de relaciones jurídicas”*.

Obra-kontratuetan lehengaien prezioa igotzeari buruz, zehazki petrolioaren eta haren eratorrien prezioen ohiz kanpoko igoerei buruz, eta horrek kontratistaren arrisku eta menturaren printzipioarekin eta aurreikusiezinezko arriskuaren doktrinaren bidez salbuestearekin duen loturari buruz, Auzitegi Gorenak

bere iritzia eman du hainbat epaitan; besteak beste, 2006ko maiatzaren 6an, 2009ko ekainaren 16an, urriaren 27an eta azaroaren 10ean eta 2020ko irailaren 9an (guztiak ere ezesleak). Obra-kontratu batean asfaltozko auzilariaren prezioak igotzeari buruzko 2009ko urriaren 27ko epaian, Auzitegi Gorenak honako hau adierazi zuen:

*“(...) En nuestra Sentencia de 18 de abril de 2008 (recurso de casación nº 5033/2006) pusimos de manifiesto que “(...) la doctrina del riesgo imprevisible, enlazada a la de la cláusula rebus sic stantibus, exige que, como consecuencia de la aparición de un riesgo que no pudo ser previsto al tiempo de celebrarse el contrato, se alteren sustancialmente las condiciones de ejecución del mismo, de modo que la prestación pactada resulte mucho más onerosa para una de las partes de lo que inicialmente podía preverse”. Por otro lado, tal y como expusimos en nuestra Sentencia de 25 de abril de 2008 (recurso de casación nº 5038/2006): “Es indudable que la imprevisibilidad contempla sucesos que sobrevienen con carácter extraordinario que alteran de forma muy notable el equilibrio económico y contractual existente en el momento del contrato pues sobrepasan los límites razonables de aleatoriedad que comporta toda licitación. Implica, por tanto, aplicar los principios de equidad (art. 3.2 C.Civil) y de buena fe (art. 7.1 C.Civil) por la aparición de un riesgo anormal que cercena el principio del equilibrio económico-financiero entre las partes pero sin atacar frontalmente el principio de riesgo y ventura esencial en la contratación pública. Habrá de atenderse al caso concreto ponderando las circunstancias concurrentes. Tal cual se ha dicho en la reciente sentencia de 18 de abril de 2008, recurso de casación 5033/2006, respecto una situación análoga, es claro que, tal cual refleja la Sala de instancia, los precios del petróleo se liberalizaron tras la Orden Ministerial de Hacienda de 1 de octubre de 1986. En consecuencia, en la fecha de adjudicación del contrato, 1993, ya estaban liberalizados los precios constituyendo por ello un riesgo si incrementaban el precio o una ventura en el caso de que aquel disminuyese. (...) **Debe atenderse a las circunstancias de cada contrato en discusión para concluir si se ha alterado o no de modo irrazonable ese equilibrio contractual a que más arriba hemos hecho mención. La incidencia del incremento ha de examinarse sobre la globalidad del contrato pues un determinado incremento puede tener mayor o menor relevancia en función de la mayor o menor importancia económica del contrato y de los distintos aspectos contemplados en el mismo. (...) Por último, respecto de la invocación de la doctrina relativa al enriquecimiento injusto, hemos de recordar, que no hay tal en el supuesto de autos, en el que se trata de un contrato regido por el principio de riesgo y ventura del contratista (...) como esta Sala ha declarado, **el solo incremento de los precios de los materiales del contrato, dados los principios por los que el mismo se rige sólo puede alcanzar trascendencia cuando se produzca un verdadero y real desequilibrio económico financiero**, que, en el presente caso y conforme acaba de señalarse, no ha quedado acreditado para la Sala de instancia. (...)”***

2020ko irailaren 9ko epaian, Auzitegiak berriro azpimarratzen du obraren kontratistaren arrisku eta menturaren printzipioa, bai eta haren salbuespen bat izan daitekeen arrisku aurrekustezinaren teoria ez hautematean ere:

*“(...) Como reiteradamente ha recordado el Consejo de Estado, **en los contratos de obra -criterio asumido por nuestra jurisprudencia-, salvo fuerza mayor (lo que aquí no acaece), la ejecución de la obra se realiza a "riesgo y ventura" del contratista que asume tanto el mayor beneficio como la mayor pérdida derivada de la actividad empresarial en el plazo de ejecución de la misma. La Administración se limita a garantizar un "aleas" normal en la variación de materiales en los términos de la aplicación de la cláusula de revisión de precios, cuando esta procede y así se estipula en el contrato. El principio de riesgo y ventura no cede ante una alteración sobrevenida de las circunstancias sino cuando ésta (fuera de los supuestos de fuerza mayor) es de tal índole que comporta una quiebra radical del equilibrio económico financiero contractual, por su excesiva onerosidad, por su imposible compensación mediante la revisión de precios cuando así esté pactada -como aquí acontece, revisión que fue efectuada y asumida, sin protesta, por la hoy recurrente- y por suponer una frustración completa de los presupuestos contractuales (todo ello conjuntamente). (...)***

En el contrato de obras la obligación principal es la de ejecutar la misma, no la del suministro de materiales, y el precio no se fija por el de los materiales, sino por el de la realización de la obra. Como recuerda nuestra sentencia de 10 de noviembre de 2009 (casación 930/07), reiterando y transcribiendo parcialmente la de 25 de abril de 2008, desde el momento en que los precios del petróleo se liberalizaron por la ya lejana Orden del Ministerio de Hacienda de 1 de octubre de 1986, el contratista sabe de las fluctuaciones, a veces muy importantes, de los precios del crudo y sus derivados, algo que ha de tener en cuenta a la hora de efectuar la correspondiente oferta, asumiendo el riesgo económico que dichas subidas pueda comportar en el beneficio esperado. En todo caso, el fuerte incremento del precio de los litigantes bituminosos ha de ponerse en relación con el precio total y duración de la obra (...)

Aurreko guztia kontuan hartuta, ez dirudi baketsua denik esatea energia-kostuen igoerak berez eta oro har aurreikusi ezinezko arriskuaren barruan sartzen ote den, eta kasuz kasu aztertu beharreko kontua da.

Edonola ere, eta nahiz eta aurreko hiruhilabetei zegokionez enpresaren eskaerak onartuak izan diren, kasu honetan ez dago berrerekarako aukerarik, kontuan hartuta arkitekto teknikoaren txostenetik ondorioztatzen den bezala, egoera ez da bakarrik ez dela aurreikusi ezinezko galerarik egon, baizik eta erreferentziazko urtearekin alderatuta (2021), enpresak gastu gutxiago izan duela.

Enpresak, 2022 urteko azken hiruhilabeteari dagokionez alegatutako galera justifikatzeko, alderaketa 2020 urteko aldi berdinarekin egin du, eta ez orain arte erreferentzi bezala hartu den urtearekin, 2021a, alegia. Adierazten dute epealdi hori hartu dutela erreferentziazko energiaren neurrigabeko igoera 2021eko azken hiruhilabeteen hasi zelako eta beraz, ez delako bidezkoa 2021 urtea kontuan hartzea kasu honetan.

Hala ere, arrazoi sendoak daude enpresaren eskaera ezesteko eta erreferentzia-urtea 2021a izateko:

- Lehenik eta behin, 2021 urtea izan da erreferentzia bezala hartu beharrekoa aurreko hiru hiruhilabeteen kasuan. Hori baketsua izan da beti, inongo momentuan kontrajarria izan ez delarik orain arte.
- Baina, batez ere, 2021 urtea izan behar du erreferentzia eta ez 2020, **kontratu honen lizitazioaren barruan BPXPORT XXI S.L.U.k 2021eko azaroaren 15ean egin zuelako bere eskaintza ekonomikoa**. Hau da, egia izan badaiteke ere energiaren prezioen igoera 2021 urtearen azken hiruhilabeteen hasi zela, **enpresak egoera hori ezagutzen zuen eskaintza aurkeztu zuenean eta, beraz, ez da aurreikusiezina**; asko jota, aurreikusigabeak da, eta ez du inolaz ere justifikatzen kontratuaren berrereka ekonomikoa berrezartzeko eskaera bat.

Ondorioz eta aurreko guztia kontuan hartuta, **kontratuaren oreka ekonomikoa berrezartzea EZ da bidezkoa.**

Aurrekariak eta oinarri juridiko guzti hauek kontutan hartuta, eta Sektore Publikoko Kontratuen araudiaren eta toki-jardubidearen araubideak ematen dizkion ahalmenen egikaritzan, 2023ko maiatzaren 24an Obrak eta Zerbitzuak Batzordeak emandako aldeko diktamenarekin adostasunean, Udaltzarak honako akordioa hartu du:

Bakarra.- Ezezteza BPXPORT XXI, S.L. enpresak egindako eskaera, eta, ondorioz, 2022ko urriaren 1etik 2022ko abenduaren 31era bitarteko energiaren kostuaren igoera dela eta, Oiartzungo Elorsoro Kiroldegia, Madalensoro Pilotalekua eta Udako Igerilekua Udaltzarak instalazioen zerbitzu emakidaren kontratua **EZ berrerekatzea**.

Ondoren gaia bozkatu egin da.

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	13	EHBildu, EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

Beraz, gaia aho batez onartu da aldeko 13 botorekin (EHBildu, EAJ/PNV).

- VIII -

OIARTZUNGO UDALEKO 2023. URTEKO LANPOSTUEN ZERRENDAREN ALDAKETA ONARTZEA.

2023ko urtarrilaren 25ean egindako ohiko Osoko Bilkuran, 2023. urteko lanpostuen zerrendari eta plantillari hasierako onespena eman zitzairen. 2023ko otsailaren 13an, 29. zenbakia duen Gipuzkoako Aldizkarian argitaratu ziren erabakia eta eranskinak.

Alabaina, lanpostuen zerrenda aldatzeko beharra dago, bi aldaketa irizpide proposatu baitira, eta hortaz bi txosten juridiko egin dira aldaketak aztertzeko.

Batetik, Udaleko Osoko Bilkurak, 2022/11/30ean, Udaltzaingo saileko funtzionarioei “LO-rekiko ezberdintasuna” ordainsari-osagarriaren esleipena eta ordainketa etetea erabaki zuen, funtzionarioen ordainsariei buruzko funtzio publikoaren oinarritzko araudia ez betetzeagatik, 2022ko azaroaren leko eragin datarekin.

Aldi berean, Udaltzaingo saileko lanpostuen ordainsariak behar bezala ezartze aldera, Rodriguez Viñals S.L. enpresak (horretarako kontratatutako enpresa) 2023 martxoaren 7an txosten tekniko-juridikoa eta lanpostuen balorazioa aurkeztu zituen, eta hauen azterketa egin da, lan tekniko osoa espedienteen jaso delarik.

Bestetik, 2022ko ekainaren 29an Oiertzungo Udaleko Pertsonal Batzak aurkeztu zuen etxez etxeko langileen lanpostuak duen maila berrikusteko eskaera eta, eskaera aztertuta, 2018ko azaroaren 30ean argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (231 zk.) etxez-etxeko zerbitzuaren udal araudian etxez-etxeko laguntzaileen eginkizunak profesionalizatu eta eguneratu ziren (5.art), baina honek ez zuen Lanpostuen Zerrendan eraginik eduki.

Lanpostuen alderaketaren baitan, Giza Baliabideetako teknikariak egindako txostenean ondorioztatzen da, balio bera duen lanari ordainsari berbera dagokiola defendatzen duen printzipioaren baitan, etxez-etxeko laguntzaileen lanpostuei Udaltzari ordainsari-sistemaren arabera ordainsari berdintasuna ezarri eta 10. mailara igotzea egokia dela.

Guzti hau kontutan hartuta, Langileria Batzordeak 2023ko maiatzaren 24an egindako bilkuran emandako aldeko diktamenarekin adostasunean, Udaltzari honako akordioa hartu du:

Lehena.- Etxez-etxeko laguntzaileen lanpostuen eta Udaltzari saileko lanpostuen balorazioa onartzea, eta Udaltzari saileko lanpostuen eginkizunen fitxak onartzea (I. eranskina).

Bigarrena.- 2023. urteko lanpostuen zerrenda aldatzea, hau da, II. eta III. eranskinetan jasotako lanpostuei lotutako destino osagarrien eta berariazko osagarrien aldaketa onartzea.

Hirugarrena.- Lanpostuen zerrendaren aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea. Lanpostuen destino osagarrien eta berariazko osagarrien aldaketak 2022ko azaroaren 1etik aurrera izango du eragina.

Laugarrena.- Erabaki hau interesdunei jakinaraztea, zuzenbidean dagozkion errekurtsioak adieraziz

Ondoren gaia bozkatu egin da.

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	13	EHBildu, EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

Beraz, gaia aho batez onartu da aldeko 13 botorekin (EHBildu, EAJ/PNV).

- IX -

OIARTZUNGO UDALEKO KORPORAZIO-KIDEEN INTERESEN ERREGISTROAK ERATZEA ETA DAGOZKION AITORPENAK EGITEKO EREDUAK ETA AURKEZPEN ARAUBIDEA ONESTEA.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75.7 artikulua dio toki korporazioetako kide guztiek bateraezintasuna sor dezaketen arrazoiei buruzko eta diru-sarrerak ematen dizkien edo ekar diezazkiekeen beste edozein jarduerari buruzko aitorpena aurkeztuko dutela. Halaber, beren ondare-ondasunen aitorpena aurkeztuko dutela xedatzen du.

Bi aitorpenok, bateraezintasunarena eta jarduerena alde batetik eta ondare-ondasunena bestetik, osoko bilkurek onetsitako ereductan egingo dira eta toki korporazio bakoitzean eraturako interesen erregistro banatan inskribatuko dira.

Guzti hau kontutan hartuta, 1987 urteaz geroztik Oiartzungo korporazio-kideek aipatu bi aitorpen horiek aurkeztu dituzte eta dagokion udal erregistroetan inskribatuak izan dira.

Halere, aitorpen ereduak Osoko Bilkuraren onespina jaso behar dute eta bi erregistroak, bateraezintasun eta jarduerenak eta ondare-ondasunenak, eratu egin behar dira, erabaki hau ere Osoko Bilkurari dagokiolarik.

Beraz, Udal idazkariak egindako txostenaren baitan, eta Ogasun, Kontu Berezien eta Hainbat Gaien Batzordeak 2023ko maiatzaren 16an egindako bilkuran emandako aldeko diktamenarekin adostasunean, honako akordioa hartu du Udalbatzak:

Lehena.- Korporazio-kideen interesen erregistroak eratzeko, alde batetik, haien bateraezintasunen eta diru-sarrerak ematen dizkien edo ekar diezazkiekeen jarduerak jasoko dituen eta bestetik, ondare-aitorpenak jasoko dituen.

Bigarrena.- Aitorpenok egiteko ereduak, eranskinean jasotakoak, onestea.

Hirugarrena.- Ondasunen eta jardueren urteko aitortzea egin eta aurkezteko araubidea onartzea, honela:

- Ondasunen eta jardueren urteko aitortzea Idazkaritzan aurkeztuko da, Osoko Bilkurak onartutako ereduaren arabera, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga aurkezteko borondatezko epea amaitzen denetik gehienez ere hilabete bateko epean.
- Errentaren gaineko Zergaren eta, hala badagokio, Ondarearen eta Sozietateen gaineko Zergaren likidazioen aitortzen Idazkaritzan aurkeztuko dira, horiek aurkezteko borondatezko epea amaitu eta gehienez ere hilabete epean.

Laugarrena.- Egoitza elektronikoa sarrera bat gaitzea, aitortze-ereduak eta urteko aitortzeen zerrenda jasotzeko, aurkezpen-data eta aurkezteko daudenak adieraziko duena.

Bosgarrena.- Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Seigarrena.- Udaltzako kide guztiei banan-banan jakinaraztea.

Ondoren gaia bozkatu egin da.

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	13	EHBildu, EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

Beraz, gaia aho batez onartu da aldeko 13 botorekin (EHBildu, EAJ/PNV).

- X -

HAINBAT UDAL ZERGETATIK ERATORRITAKO ZORRAK KOBRAEZINAK AITORTZEA.

Dirubilketa zerbitzuak kobraezinak, preskribatuak eta deribatu diren ordainagiriaren zerrenda egin du eta kobratzeko eskubideari baja emateko izapideak egin daitezela proposatu du.

Guzti hau kontutan hartuta, Ogasun, Kontu Berezien Eta Hainbat Gaien Batzordeak, 2023ko maiatzaren 16an egindako bilkuran emandako diktamenarekin adostasunean, Udaltzako honako akordioa hartu du:

Zerrendatutako eta eranskinean jasotako ordainagiriak kobraezin edo preskribatuak aitortzea eta kobratzeko eskubideari baja emateko izapideak agintzea.”

Ondoren gaia bozkatu egin da.

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	13	EHBildu, EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

Beraz, gaia aho batez onartu da aldeko 13 botorekin (EHBildu, EAJ/PNV).

- XI -

2022 EKITALDIKO OIARTZUNGO UDALAREN AURREKONTUAREN KONTU OROKORRA ONARTZEA.

Oiartzungo Udaleko Kontuetako Batzorde Bereziak 2022 ekitaldiko Udalaren Aurrekontuaren Kontu Orokorraren aldeko txostena eman zuen 2023ko apirilaren 4an egindako bilkuran.

Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, 63.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, aipatu Kontu Orokorra eta Batzorde Bereziaren txostena jendaurrean jarri ziren 2023ko apirilaren 19ko 74 zenbakiko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarki bidez, hamabost eguneko epean, hau da, apirilaren 20tik maiatzaren 11 arte.

Epe horretan alegaziorik edo erreklamaziorik jaso ez denez, Ogasun, Kontu Berezien eta Hainbat Gaien Batzordeak 2023ko maiatzaren 16ean emandako aldeko diktamenarekin adostasunean, 2022 ekitaldiko Udalaren Aurrekontuaren Kontu Orokorra behin betikoz onartu du Udalbatzak.

Ondoren gaia bozkatu egin da.

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	13	EHBildu, EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

Beraz, gaia aho batez onartu da aldeko 13 botorekin (EHBildu, EAJ/PNV).

- XII -

BESTE EKITALDIETAKO ORDAINAGIRIAK BALIOGABETZEA.

Zerga bilketa arduradunak idatzitako txostenen baitan jarraian zerrendatutako erreziboa edo likidazio batzuk baliogabetu eta kasua balitz, ordezeko agiriak sortzeko eta dagokionean itzulpenak egiteko proposamena egin du.

Beste kasu batzuetan ordainagiriak baliogabetzeko eskaerak ezezteko proposamena egin du.

Egindako proposamenen xehetasuna jasotzen da honako tauletan:

UR-HORNIDURA ETA ESTOLDERIA ZERBITZUA EMATEAGATIKO TASA

Ordainag.	Titularra	€	Arrazoia
3 2022 03 3540	Oria Alquiler de Maquinaria S.L.	3.388,28	Ur erroldako oinarritzko dokumentazioa aztertu ondoren eta uretako teknikariak esandakoarekin bat, Lintzirin-gainan 2022/03 epeko uraren ordain-agirian gehiegizko kontsumoa erantsi zaio aurreko irakurketa okerra jasotzearen ondorioz. Hortaz, aipatu ordain-agiria baliogabetu (ordaindua balego itzuli) eta ordezeko ordainagiria sortzea proposatzen da, aurreko irakurketa zuzenduta. Horrela, aurreko irakurketa 817 m ³ koa izanda eta azken irakurketa 966 m ³ koa, 149 m ³ tako kontsumoarekin ordezeko 2022/03 epeko ordainagiria sortzea proposatzen da.

Ordezko ordainagiriak

Titularra	€	kontzeptua
Oria Alquiler de Maquinaria S.L.	585,97	Lintzirin-gaina, 2022/03 epea

HIRI-LURREN BALIO-GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA

Espedientea	Kitapena	Titularra	€	Arrazoia
2022ER110202	350/2022	M Carmen Larrabide Goti	623,44	Uztailaren 5eko Hirilurren Balioaren Gehikuntzen gaineko Zergari buruzko 16/1989 Foru Arauaren 1.3. atalean dio lurren eskualdaketak ez direla egongo zergari lotuta eskualdaketa eta eskurapen datetan haien balioen artean dagoen diferentzia kalkulatzeko balio gehikuntzarik ez dela izan egiaztatzen denean. Kasu honetan, Mamuteko galerietan 76 zenbakiko lokala saltzerakoan, salmenta eta bere garaiko erosketa eskriturak alderatuta irabazia egon dela jarri da agerian. Beraz, aipatu kitapenak baliogabetzeko eskaera UKATZEA proposatzen da.
2022ER110202	349/2022		890,63	Uztailaren 5eko Hirilurren Balioaren Gehikuntzen gaineko Zergari buruzko 16/1989 Foru Arauaren 1.3. atalean dio lurren eskualdaketak ez direla egongo zergari lotuta eskualdaketa eta eskurapen datetan haien balioen artean dagoen diferentzia kalkulatzeko balio gehikuntzarik ez dela izan egiaztatzen denean. Kasu honetan, Mamuteko galerietan 19, 23 eta 72 zenbakiko lokalak saltzerakoan, salmenta eta bere garaiko erosketa eskriturak alderatuta galera jarri da agerian. Beraz, aipatu kitapenak baliogabetzeko proposatzen da.
	351/2022		443,60	
	352/2022		1.025,67	
2022ER110170	348/2022	Langarri Distribución y Almacenaje S.L.	6.060,57	Uztailaren 5eko Hirilurren Balioaren Gehikuntzen gaineko Zergari buruzko 16/1989 Foru Arauaren 1.3. atalean dio lurren eskualdaketak ez direla egongo zergari lotuta eskualdaketa eta eskurapen datetan haien balioen artean dagoen diferentzia kalkulatzeko balio gehikuntzarik ez dela izan egiaztatzen denean. Kasu honetan, Zuaznabar kaleko 125. lokala saltzerakoan, salmenta eta bere garaiko erosketa eskriturak alderatzerakoan, galera jarri da agerian. Beraz, aipatu kitapena baliogabetzeko proposatzen da.

JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGA

Ordainag.	Titularra	€	Arrazoia
46 2019 01 456737E	Neinor Norte SLU	410,54	Neinor Norte S.L.U.ren izenean jasotzen zen 456737 E jarduerari baja eman zitzaion 2017/05/16ko datarekin, beraz, 2019an ordaindutako zergaren kitapena baliogabetzeko proposatzen da, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorraren 228. artikuluan jasotakoaren arabera. Dagozkion interesak ere ordainduko dira.
46 2018 01 456737E	Neinor Norte SLU	410,54	Okerreko sarrera izanda itzulketa eskatzeko eskubidea lau urteren barruan preskribatzen da. Itzulketa hau eskatzeko aukera izan eta hurrengo egunetik aurrera lau urte baina gehiago pasa dira. Horrela, ordainketa egiteko borondatezko epea 2018 11 12an amaitu zen eta hurrengo egunetik lau urte baina gehiago igaro dira itzulketa eskatu denerako (eskaera 2022ko azaroaren 28an egin da). Beraz, 2018ko ordainagiria itzultzeko eskaera UKATZEA proposatzen da.

ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA

Ordainag.	Titularra	€	Arrazioa
49 2021 01 6109645N	Alberto Hidalgo Beristain	27,56	2020ko azaroaren 3an Bengoetxea plaza 3E garajea saldu arren, 2021 eta 2022 urteetako ordainagiriak bere izenean sortu zaizkio. Beraz, aipatu ordainagiriak baliogabetzea proposatzen da, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorren 228. artikuluan jasotakoaren arabera.
49 2022 01 6109645N		28,37	

Guzti hau kontuan hartuta, Ogasun, kontu berezien eta beste gaien batzordeak, 2023ko maiatzaren 2an eta 16an egindako bilkuretan emandako diktamenekin adostasunean, Udalbatzak honako akordioa hartu du:

Proposamenaren arabera, erreziiboak eta likidazioak baliogabetzea eta kasua balitz, ordezkariak sortzeko agindua ematea. Halaber, eta dagokionean, ordaindutako diru-kopurua (gainkargua barne) itzultzea, bertan azaltzen diren arrazoiengatik.

Era berean, horrela proposatutako kasuetan, ordainagiriak baliogabetzeko eskaerak ukatzea, emandako arrazoiengatik.

Ondoren gaia bozkatu egin da.

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	13	EHBildu, EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

Beraz, gaia aho batez onartu da aldeko 13 botorekin (EHBildu, EAJ/PNV).

- XIII -

BESTE ORGANOEN JARDUERAREN JARRAIPENA.

- Hartutako **erabakiak**:

Alkatearen ebazpenak:

2023ko apirilaren 22tik 2023ko maiatzaren 19a arte.

Zk. 2023/597tik 2023/747ra arte.

Tokiko Gobernu Batzarrak:

2023ko maiatzaren 16an egindako ohiko bilkura.

- Protokolo eta ordezkapen **gastuak eta dietak**:

Maiatzean ez da kontzeptu horietan gasturik egon.

- 2023 ekitaldiko 4. **kreditu aldaketaren** berri ematen da, gaikuntza bidez onartutakoa, 2023ko maiatzaren 10eko 688 zenbakiko Alkatearen ebazpenaren baitan. Honela dio:

“DEKRETUA

Kreditu gaikuntzen erregimenaren bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea aztertu dugu, 4/2023 zenbakiarekin identifikatua eta Oiartzungo Udal honen 2023ko aurrekontuaren barnean izapidetua.

Kontu-hartzaileak egindako aldeko txostena aztertu eta gero.

Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak 31. artikuluan eta Aurrekontua garatzeko Udal Arauak bere 5.3 artikuluan ematen dizkidaten ahalmenez baliatuz, honako hau

EBATZI DUT

Lehenik.- Kreditu gaikuntzen erregimenaren bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea, **49.897,22 €** zenbatekoaz, espedientearekin batera jasotako egoera orritan ageri den kontzeptu eta partiden xehekapen berarekin.

Bigarren.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta betebeharrekoa denez gero, bidezkoa da onetsitako kreditu aldaketa Fondoen Kontuhartzailtza Zerbitzuek kontabilitatean berehalako ondorioekin islatzea. Hori, Udalbatzarrari egiten duen lehen bilkuran egintza honen berri ematea eragotzi gabe.

Alkate udalburu jaunak agintzen eta sinatzen du.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

- XIV -

ESKARI-GALDERAK.

Alkate jaunak esker onak eman dizkie azken bi legegintzaldietan, batzuk 8 urtez beste batzuk 4 urtez, berarekin lanean aritu diren zinegotziei eta baita langileei. Ordu eta lana asko konpartitu dutela dio, soinu handirik egin gabe. Oposizioarekin adostutako gauza asko onartu dituztela ere azpimarratu du eta elkar lan hori eredugarria izan dela adierazi du, azken finean, gehiengoarekin edo gutxiengoarekin, denok herri ordezkariak izan direlako. Jasotako tratua eskertu du ere eta esperientzia izugarria izan dela adierazi du, oso gustura sentitu dela dio.

Azkenik zortea opa die jarraituko dutenei.

Ondoren, Eneritz Arbelaitz zinegotzi andreak Alkate jaunari eman dizkio eskerrak. Alkatearen pazientzia, konstantzia, herritar guztien Alkatea izatea azpimarratu ditu. Bulegoa beti irekia izan duela dio eta etorri diren guztiei entzun, enpatizatu, muinera joateko gaitasuna erakutsi eta laguntza eskaini diela, ilusioarekin, modu natural batean. Eta horrela, modu natural horretan, harrokeriarik gabe, kudeatu duela herria.

Azkenik, Janire Mitxelena zinegotzi andreak hitz egin du, oso gustura eta babestua sentitu dela adieraziz. Alkate jauna oso pertsona ona dela esan du. Zorte ona opa eta eskerrak eman dizkio.



Eta beste aztergairik ezean, lehendakariak amaitutzat eman du batzarra, 18:45ak direnean. Idazkariak batzarrari dagokion agiri hau idatzi eta alkateak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorritz Toki Erakundeen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, idazkaria naizen honek, ematen dut.

Alkatea

Idazkaria